

xxx/2022 Dekretua, xxxaren xx(e)koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (2000) 14. artikuluan ezartzen du pertsona guztiek dutela hezkuntzarako eskubidea –barne dela derrigorrezko hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza inklusiboa eta kalitatekoa doan jasotzeko ahalmena–, beren bizitza-proiektuan arrakasta lortzeko gaitasunak eskuratu eta mantentzeko gizartean bete-betean parte hartzeko.

Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legeak (otsailaren 18ko 3/2005 Legea) ezartzen du haur eta nerabe guztiek dutela hezkuntzarako eta irakaskuntzarako eskubidea. Bestalde, ekainaren 4ko 8/2021 Legeak (Haurrak eta nerabeak indarkeriatik modu integralean babestekoa) adierazten du funtsezkoa dela haurren eta nerabeen giza duintasuna eta integritate fisikoa eta psikologikoa errespetatzen direla ziurtatzea eta errespetatu daitezkeen sustatzea, indarkeria-mota ororen prebentzioaren bidez. Familia eta eskola dira ikasleen hezkuntza-prestakuntzaren funtsezko bermatzaileak.

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak (Hezkuntzarena, maiatzaren 3ko 2/2006 Legea (Hezkuntzarena) aldatzen duena) curriculumaren kontzeptuari eta irteera-profilari buruzko aldaketak sartu ditu. Bestalde, eskumen-banaketa berria izan da Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean, eta horrek funtsean aldatzen du Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuan (2016ko urtarrilaren 15eko EHAA) ezarritakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatuaren 16. artikulua irakaskuntzaren gaineko eskumena esleitzen dio Euskal Autonomia Erkidegoari, irakaskuntzaren osotasunean, maila eta gradu guztietan eta modalitate eta espezialitate guztietan. Eskumen horretaz baliatuta, Hezkuntza Sailak Lehen Hezkuntzari eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokien curriculuma onartu du Euskal Autonomia Erkidegoan.

Euskararen Legea (10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilpena arautzen duena) da euskal ikasle guztiak euskaraz zein gaztelaniaz behar adinako komunikazio-kompetentziarekin moldatzeko ahaldunduko dituen kompetentzia eleaniztunean aurrera egiteko tresna. Era berean, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen (otsailaren 19ko 1/1993 Legea) helburu hau dago jasota: derrigorrezko irakaskuntza-aldia amaitzean bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa baldintza-berdintasunean bermatzea, euskararen erabilera bultzatuz eta, horrela, euskararen erabilera normalizatzen lagunduz, euskara hezkuntza-komunitatearen jardura guztietan ohiko adierazpide gisa erabil dadin.

Dekretu honen bidez curriculuma zehaztearen helburua da euskal hezkuntza-sisteman lortutako hezkuntza-mailak hobetzea eta XXI. mendeko erronka handiei erantzungo dieten hezkuntza-xede berriak bultzatzea. Hori guztia 2030erako Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (UNESCO) bat etorriz, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren testuinguruan, eta, zehazki, 4. helburuarekin (“Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea”), eta etengabeko ikaskuntzarako funtsezko kompetentziei buruzkoa den 2018ko maiatzaren 22ko Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendioarekin bat.

Dekretu hau idazteko, funtsezkoak izan dira Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu den hezkuntza-ibilbidea; azken urteetan garatu diren proiektu inklusiboen implementazioa; euskara sistemaren ardatz nagusi gisa duen esparru eleaniztun baten aldeko apustua; eta hezkuntza-komunitateak partekatu eta bultzatu duen kultura pedagogikoa. Era berean, kontuan hartu dira gure inguruneko gizarte- eta hezkuntza-erronkak eta hezkuntza-sistemaren etengabeko hobekuntza.

Horretarako, Oinarrizko Hezkuntza amaitzean, ikasleek hezkuntza-xedeak erdietsita izan behar dituzte eta bizitzaren esparru eta egoeretan moldatzen jakin behar dute. Horrekin bat, dekretu berriak ikasleen irteera-profilaren kontzeptua –Heziberri 2020aren Markoak jasotzen zuena– berriro formulatzen du. Izan ere, Oinarrizko Hezkuntza amaitzean lortu behar den pertsona-eredua deskribatzen du, eta ikasleek erdietsi behar dituzten funtsezko kompetentzien lorpena ezartzen du. Irteera-profila deskriptore operatiboen bidez definitzen da; lorpen-estandar horiek ikasle guztiek etapa amaitzean erdietsita izango dituztela ziurtatu beharko da.

XXI. menderako paradigma-aldaketa

XXI. mendeko “ezagutzaren gizarteak” aldaketa sakonak eskatzen ditu, eta aldaketa horiek berekin dakartzate eskari kognitibo berriak eta ikasleek eskuratu beharreko gaitasun berriak. Hori dela eta, irakasteko modu berriak eta eskolan elkarri eragiteko modu berriak behar dira. Ikasleen aniztasunak paradigma-aldaketa eskatzen du, egitura malguagoak eta irakaskuntzan kolaboratzeko prozedurak izateko, eta irakasleen arteko eta ikastetxeen arteko sareak sortzeko. Egin beharreko aldaketek eta hobekuntzek Oinarrizko Hezkuntza lehenetsi behar dute. Izan ere, hezkuntza-etapa horretan, belaunaldi berriak helduen bizitzarako prestatu behar dira eta, horretarako, oinarri sendoak ezarri behar dira bizitza osorako hezkuntzarako eta beren bizitzak zentzuz zuzentzeko gai izan daitezen, nor bere helburuak hautatu ditzan, beren erabakien erantzule izan daitezen, oraingo eta etorkizuneko beharrekiko erantzukizuna bere gain hartu dezaten, eta pertsonen zaintza susta dezaten eta gizartean integra daitezen, betiere modu aktiboan eta kritikoan eta arduraz parte hartuz.

Ingurumen-krisiak, eta krisi humanitarioak, balioenak eta sanitarioak (emozionala eta fisikoa, eta COVID-19aren pandemiaren ondoriozko egoera) inoiz baino gehiago eskatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren ikasleek enpatia, autonomia, erresilientzia, espirtu kooperatibo eta kritikoa, konpromiso soziala eta ingurumenarekiko konpromisoa garatzea, eta gero eta globalizatuagoa, interdependenteagoa eta zalantzazkoagoa den eta Laugarren Industria Iraultzan (*Industry 4.0*) eta erronka sozial handietan murgilduta dagoen munduan bizitzeko funtsezko kompetentziak izatea.

Gainera, garrantzizkoa da kultura bakoitzak behar horiei eskaintzen dizkien erantzunak ezagutzea, etnozentrismoaren arriskuak saihesteko eta beste kultura batzuen ekarpenak baloratzeko edo aintzat hartzeko, kultura guztien arteko errespetua eta elkarriketa bultzatuko duten kulturarteko hezkuntza-planteamenduen bidez. Era berean, garrantzizkoa da aniztasun afektibo-sexuala eta kulturala onartzea, sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren araberrako esterotipo eta rol guztiak alde batera utzita.

Hezkuntza-eredu pedagogikoaren marko berriak Heziberri 2020 ereduan du jatorria. Heziberri 2020ren zeharkako eta diziplinako kompetentziak funtsezko kompetentzietara

eta konpetentzia espezifikoetara bideratzen dira, Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendioari (2018) jarraituz.

Gure hezkuntza-ereduaren hobekuntzan aurrera egiteko, Dekretu hau honako ildo estrategiko hauen barruan sartzen da, eta ildo horiek izango dira oinarrizko erreferentziak eredu horretako elementuen garapenean:

- Ikasleak dira euskal hezkuntza-sistemaren giltzarria; horregatik, funtsezkoa da haien ongizate emozionala eta zaintza, arrakasta-bermea, inklusibitatea, curriculumaren unibertsaltasuna eta irteera-profila, XXI. mendeko erronkei maila pertsonalean, sozialean eta profesionalean aurre egiteari begira.

- Ikastetxea da hezkuntza-eraldaketarako ardatza, erakunde ahaldundua, lidergo banatua sustatzen duena (antolaketa-kudeaketa, kudeaketa pedagogikoa...) eta hezkuntza-komunitate osoaren ikaskuntzan eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako berrikuntza bultzatzen duena. Horretarako, Hezkuntza Sailak ikastetxeen autonomia sustatuko du.

- Irakasleek rol aktiboa hartu behar dute ikaskuntza-prozesuan; haien lidergoa oinarrituko da ematen duten jakintzagaiaren, arloaren edo eremuaren ezagutzan eta aplikatzen dituzten trebetasun didaktiko eta metodologiko koherenteetan. Gainera, gidari, orientatzaile edo bultzatzaile gisa jardun behar dute ikaskuntza partekatuko edo ikaskuntza autonomoko jardueretan, bai eta talde-lanera edo kolaborazio-lanera edo proiektu bidezko lanera bideratutako jardueretan edo garapen pertsonalerako,

- Ikaskuntza sakon eta funtzional jakin baterantz bideratzen den konpetentzia-curriculum. Ikasten dena zenbait testuinguru desberdinetara transferitzen da, denboran zehar irauten du eta egoera errealetan problemak ebazteko aukera ematen du.

- Hizkuntza-hezkuntza eleaniztunaren (hezkuntza linguistikoaren eta eleaniztunaren) kalitatea funtsezkoa da, errealitatea ulertzeko, pentsamendua adierazteko, arrazoitzeko, ezagutza transmititzeko eta mundua ikusi eta ulertzeko eta besteekin harremanetan izateko beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak ematen baititu. Gainera, hizkuntza-konpetentzia eta konpetentzia-eleanitza garatzeak gainerako funtsezko konpetentzien garapena bultzatzen du, eta, beraz, beste arlo batzuen zerbitzura egongo da.

- Curriculumerako sarbidearen unibertsaltasuna. Guztiek kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera izatea ekarriko du eta benetako integrazioarako, aukeraberdintasunerako, erabateko partaidetzarako eta hezkuntzaren arrakastarako bidea finkatuko du. Horretarako, ikaskuntzarako garapen unibertsala hartuko da aintzat irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan.

- Hezkidetzak, maila eta modalitate guztietan, ikastetxeen antolaketa pedagogikoaren irizpide orientatzailea den aldetik eta hezkuntza-sistemaren ildo estrategikoa den aldetik, funtsezkoa da pertsonen garapena errazteko, sexuaren, sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren arabera estereotipoen eta rolen kanpo.

- Arreta berezia eskaintzea ikasleen ongizate emozionalari eta hezkuntza-komunitate osoaren zainketari. Arreta horretan sartzen dira ondo, harmonian eta lasai sentitzearen esperientzia subjektiboa eta zailtasunei aurre egiteak eta modu positiboan gaitzitzeak sortzen duen gogobetetasun-esperientzia pertsonala. Ongizate emozionala funtsezkoa da ingurumeneko eskaerei eta egoerei (ikaskuntza barne) aurre egiteko edo horietara egokitzeak. Curriculumak ongizate emozionalean lagundu behar du.

- Ikasleak dira euskal hezkuntza-sistemaren giltzarria; horregatik, funtsezkoa da haien ongizate emozionala eta zaintza, arrakasta-bermea, inklusibitatea, curriculumaren unibertsaltasuna eta irteera-profila, XXI. mendeko erronkei maila pertsonalean, sozialean eta profesionalean aurre egiteari begira.

- Ikastetxea da hezkuntza-eraldaketarako ardatza, erakunde ahaldundua, lidergo banatua sustatzen duena (antolaketa-kudeaketa, kudeaketa pedagogikoa...) eta hezkuntza-komunitate osoaren ikaskuntzan eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako berrikuntza bultzatzen duena. Horretarako, Hezkuntza Sailak ikastetxeen autonomia sustatuko du.

- Irakasleek rol aktiboa hartu behar dute ikaskuntza-prozesuan; haien lidergoa oinarrituko da ematen duten jakintzagaiaren, arloaren edo eremuaren ezagutzan eta aplikatzen dituzten trebetasun didaktiko eta metodologiko koherenteetan. Gainera, gidari, orientatzaile edo bultzatzaile gisa jardun behar dute ikaskuntza partekatuko edo ikaskuntza autonomoko jardueretan, bai eta talde-lanera edo kolaborazio-lanera edo proiektu bidezko lanera bideratutako jardueretan edo garapen pertsonalerako, ezagutzen eta trebetasunen hobekuntzarako eta ikasleen garapen integralerako jardueretan ere.

Hori guztia aintzat hartuta, Euskadiko Eskola Kontseiluari entzun ondoren, eta Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Hezkuntzako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 20XXko XXXXren XXan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. kapitulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-esparrua.

1. Dekretu honen xedea da Oinarrizko Hezkuntzako etaparen curriculum propioa ezartzea eta haren ezarpena, ebaluazioa eta garapena arautzea. Oinarrizko Hezkuntzaren etapan sartzen dira Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Oinarrizko Heziketa Zikloak.
2. Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntza horiek ematen dituzten ikastetxe guztietan izango da aplikatzekoa.

2. artikulua. Definizioak.

Honela ulertu beharko da:

- a) *Helburuak*: ikasleek etaparen amaieran erdiestearen espero diren lorpenak, funtsezko kompetentziak eskuratzearekin lotuta daudenak.
- b) *Irteera-profila*: ikasle guztiek Oinarrizko Hezkuntza amaitzean erdietsi behar duten kompetentzien garapen-maila, zeinak aukera emango baitie beren bizitza-proiektua arrakastaz garatzeko eta bizitzan zehar funtsezko kompetentzien garapenean aurrera egiten jarraitzeko.
- c) *Funtsezko kompetentziak*: ikasleek arrakastaz aurrera egin ahal izateko eta beren bizitzan zehar erronka eta desafio nagusiei aurre egin ahal izateko ezinbestekotzat

jotzen diren jardunak. Pertsona guztiek beren errealizazio eta garapen pertsonalerako behar dituztenak dira, bai eta herritartasun aktiboa, gizarteratzea eta enplegua sustatzeko behar direnak ere.

d) *Konpetentzia espezifikoak*: ikasleek arlo eta jakintzagai bakoitzaren oinarrizko jakintzak behar diren jardueretan edo egoeretan jokatu ahal izateko beharko dituzten jardunak. Konpetentzia espezifikoak funtsezko konpetentziak zehazteko elementuak dira.

e) *Ebaluazio-irizpideak*: ikasteko prozesuaren une jakin batean, arlo edo jakintzagai bakoitzaren konpetentzia espezifikoetan aipatutako jardueretan edo egoeretan ikasleengan espero diren jardun-mailak adierazten dituzten erreferenteak.

f) *Oinarrizko jakintzak*: pertsona batek menderatu, artikulatu eta mobilizatu behar dituen arlo, jakintzagai edo eremuen berezko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak, eta, horiekin batera, konpetentzia espezifikoetan definitutako gaitasunak, zeinek ahalbidetuko baitiote problemak ebaztea edo egoera jakin batzuetan erronkei aurre egitea. Curriculum-proposamen honetan, oinarrizko jakintza horiek hautatzen dira konpetentzia espezifikoak eskuratzeko eta garatzeko egiten duten ekarpenaren arabera, nahiz eta diziplina-logikak eduki horiek hobeto antolatzen eta aurkezten laguntzen duen.

g) *Ebaluazio hezitzailea*: irakasteko eta ikasteko prozesua ebaluatzeko modalitate bat da, izaera arautzailea duena; ikasleentzako zailtasunak eta aurrerapenak hautematea du xede, irakasleak prozesu didaktikoa ikasleentzako beharretara egokitzeko aukera izan dezan.

h) *Eremua*: curriculumaren antolaketa globalizatua eta diziplinartekoa, zenbait diziplina elkarren artean erlazionatzen dituena, eta jakintzagaien edo arloen atalen batura baino gehiago dena. Eremuak bertan sartutako arloei edo jakintzagaiei dagozkien konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak hartzen ditu barne.

i) *Ikas-egoerak*: ikasleek funtsezko konpetentziekin eta konpetentzia espezifikoekin lotzen diren jarduerak garatzea eskatzen duten agertokiak eta jarduerak, konpetentzia horiek eskuratzen eta garatzen laguntzen dutenak. Ikas-egoeretatik abiatuta egindako lanak edozein maila, arlo, jakintzagai edo eremutako mailaren programazioa artikulatzea ahalbidetzen du, konpetentzien arabera ikaskuntzaren ikuspegia sostengatzen duten jakintzak eta gaitasunak elkartzen dituzten zenbait testuingurutan oinarrituta.

j) *Ikaskuntzarako diseinu unibertsala (IDU)*: curriculumak garatzeko printzipioen multzoa, ikasle guztiei hezkuntzarako sarbidean aukera-berdintasuna ematen diena, inklusio eta parte-hartze eraginkorrak lortzeko helburuarekin, ikaskuntzarako oztipoak minimizatuz.

3. artikulua. Oinarrizko Hezkuntzaren antolaketa.

1. Oinarrizko Hezkuntza berezko identitatea duen hezkuntza-etapa da; ohiko erregimenen arruntean, ikasleak sei urte betetzen dituen urte naturalean hasten da eta, oro har, hamasei urterekin amaitzen da. Honela osatzen da: Lehen Hezkuntza, sei mailarekin; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, lau mailarekin; eta Oinarrizko Heziketa Zikloak, bi mailarekin. Ikasleak hemezortzi urtera arte egon daitezke Oinarrizko Hezkuntzan, zehazki ikasturtea amaitzen den urtean hemezortzi urte betetzen diren

arte. Nolanahi ere, muga hori salbuespenez luzatu ahal izango da 23. eta 26. artikuluetan aipatzen diren kasuetan.

2. Lehen Hezkuntzako etapa bi ikasturteko hiru ziklotan antolatzen da. Etapa horretako hezkuntza-ekintza saiatuko da ikasleen esperientziak eta ikaskuntzak ikuspegi globaletik integratzen, eta lan-erritmoetara egokituko da.

3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza mailetan oinarritzen da. Etapa horretako hezkuntza-ekintza saiatuko da ikasleen esperientziak eta ikaskuntzak ikuspegi globaletik integratzen. Horretarako, jakintzagaiak eremutan antolatuko dira, ahal den heinean. Etapa horretan, arreta berezia eskainiko zaio ikasleen hezkuntza- eta lanbide-orientazioari. Laugarren mailak izaera propedeutikoa eta orientatzailea izango du, derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketetarako zein lan-munduratzeko.

4. Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Oinarrizko Heziketa Zikloetako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek dekretu honetan ezartzen diren curriculum-elementuetara egokitu behar dute beren irakaskuntza-praktika, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak (otsailaren 19ko 1/1993 Legea) ezartzen dituen alderdietan ikastetxe bakoitzak duen autonomia pedagogikoa ezertan galarazi gabe.

5. VI. eranskinean zehazten da ikastetxeek arloetan eta jakintzagaietan eman beharreko gutxieneko ordu-kopurua, baita Oinarrizko Hezkuntzako etapa bakoitzeko kudeaketa autonomorako orduen kopurua ere.

6. Ikastetxe bakoitzak, bere autonomia pedagogikoaz baliatuz eta ikasleen hezkuntza-premien arabera, etapako zikloen antolaketa, arloen, jakintzagaien edo eremuen banaketa edo jakintzen ziklo bakoitzeko mailaz mailako banaketa eta ordutegi-esparrua konfiguratu beharko ditu bere Hezkuntza Proiektuaren arabera, dekretu honetan ezarritakoa ezertan galarazi gabe.

4. artikulua. Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak.

Oinarrizko Hezkuntzaren helburua da –osatzen duten bi etapen bidez– ahozko eta idatzizko adierazpide- eta ulermen-trebetasunak eta trebetasun logikoak eta matematikoak garatzea eta finkatzea, eta ikasleei kulturaren oinarrizko elementuak ematea, haien eremu humanistikoan, zientifiko-teknologikoan, artistikoan eta motorrean. Oinarrizko Hezkuntzaren helburua ikasle guztiek bizi-ohitura osasungarriak, elkarbizitzakoak, eta ikasteko eta lan egitekoak hartu eta sendotu beharko dituzte, beren nortasuna erabat garatzen lagunduko dien prestakuntza integrala berma dadin eta, hartara, herritar gisa dituzten eskubide eta betebeharrak erabat balia ditzaten eta presta daitezen ondorengo ikasketetan sartzeko eta etorkizunean lan-munduratzeko.

5. artikulua. Oinarrizko Hezkuntzaren printzipio orokorrak.

Oinarrizko Hezkuntza Euskadiko hezkuntza-sistemaren printzipioen arabera antolatzen da.

1. Oinarrizko Hezkuntzak unibertsala eta derrigorrezkoa izan behar du. Inklusioa eta ekitatea bermatu behar ditu ikasleen artean. Izaera hori zehaztu behar da ezagutza-maila eta -esparru guztietako hezkuntza-jarduketetan eta -jardueretan.

2. Oinarrizko Hezkuntzan, arreta berezia emango zaio ikasleen arretari eta hezkuntza-orientazioari, betiere norberaren ezagutza, potentzialtasunen garapen maximoa eta prestakuntza-jarraitutasuna sustatzeko. Ikasleen autonomia bultzatuko da eta lan-

ohiturak indartuko dira. Ikastetxeek familiekin eta legezko tutoreekin batera lan egin beharko dute hezkuntza-prozesua babesteko.

3. Oinarrizko Hezkuntza hezitzailea eta orientatzailea izango da, garapen pertsonalaren, familiarren, soziokulturalaren, akademikoaren eta profesionalaren arloetako alderdietan. Irakasle guztiak dagokien hezkuntza-etapatik eta curriculum-arlo edo jakintzagai modu bateratu eta koordinatuan esku hartzen duten hezitzaileak dira, eta lankidetzan jarduten dute baterako hezkuntza-arduradunekin, nagusiki familiekin edo legezko tutoreekin eta gizarteratzearen eta hezkuntza arloko instantziekin eta eragileekin.

4. Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaren zehaztapena eta garapena bideratu beharko da ikasle guztiak gizarteratzera, garapen pertsonal orekatua izatera, herritartasun kritikoa, berdintasunezko, aktibo eta konstruktiboa eraikitza, eta geroztiko prestakuntza-prozesuetarako sarbidea erraztera. Helburu horiek hertsiki erlazionatuta daude (l. eranskinean) zehazten den irteera-profilarekin.

5. Oinarrizko Hezkuntzak berau osatzen duten bi etapen arteko koherentzia bermatuko du. Era berean, Haur Hezkuntzatik Oinarrizko Hezkuntzara eta Oinarrizko Hezkuntzatik Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondokora behar bezala iragaten dela ziurtatu beharko du.

6. Hezkuntza-ekintza inklusiboak askotariko esperientziak, erreferenteak eta ikaskuntzak eskainiko ditu, kulturarteko ikuspegi globaletik, eta ez etnozentrkotik eta androzentrkotik. Modu pertsonalizatuan egokituko zaio ikasle guztien eboluzio-uneari eta ikaskuntza-erritmo pertsonalari.

7. Hezkuntza-praktika prestakuntza-eredu kolaboratiboan oinarrituko da, dinamika globalizatuak eta kooperatiboak bultzatzeko, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren barruan. Ikaskuntza-prozesuak hobetuko dituzten ingurune presentzial eta digital berrietarantz joko da. Era berean, ikaslea bere ikaskuntzaren motor izango den kultura sustatuko da.

8. Oinarrizko Hezkuntzak ikuspegi humanistatik prestatuko ditu ikasleak jakintzak eta balioak bereganatzeko, gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta konprometituagoa eraiki dadin. Horretarako, alderdi kognitiboak, emozionalak eta etikoak uztartu beharko dira.

9. Ikastetxeek bertara sartzeko eta bertan egoteko aukera-berdintasuna sustatuko dute, ikasleak onartzeko araudiaren arabera. Horretarako, ikasle guztiei hezkuntza-aukera berak eskainiko dizkiete, eta diskriminazio positiboko ekintza inklusiboak egingo dituzte, –hezkuntza-prozesuan laguntzeaz gainera eskola-porroterako arriskua aurreikusiko dutenak–, desabantaila ekonomiko, sozial, kultural edo pertsonalak dituztenen alde.

10. Oinarrizko Hezkuntzako arloek eta jakintzagaiek curriculumean euskal kulturaren dimentsio espezifikoa txertatuko dute eta funtsezko kompetentzia guztiak garatzen lagunduko dute.

6. artikulua. Oinarrizko Hezkuntzaren printzipio pedagogikoak.

1. Inklusioaren eta ekitatearen printzipioaren aplikazioa bermatzeko, ikastetxeek beren proposamen pedagogikoak landuko dituzte etapa honetako ikasle guztientzat, haien aniztasuna kontuan hartuta. Era berean, ikasleen ikasteko erritmo desberdinak kontuan hartuko dituzten, beren kabuz ikasteko gaitasuna bultzatuko duten eta talde-lana sustatuko duten metodoak ezarriko dituzte.

2. Hezkuntza-arloko esku-hartzearen helburua izango da ikasle bakoitzari Oinarrizko Hezkuntza amaitzean ikasleen irteera-profilean aurreikusitako funtsezko konpetentziak behar bezala eskuratzeko bidea emango dioten oinarriak modu progresiboan garatzea eta finkatzea, betiere ikasle bakoitzaren heltze-prozesua eta etapa honetarako espero diren jardun-mailak kontuan hartuta. Oinarrizko Hezkuntza amaitzean, espero da ikasleak aldaketak sustatzeko gai izatea eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen erronkei aurre egiteko gai izatea.

3. Honako hauek bermatu behar dira: hezkuntza-inklusioa, arreta pertsonalizatua, ikasleek ikastetxeko egituretan eta bizikidetzan positiboan parte hartzea, ikaskuntzan zailtasun espezifikoak goiz hautematea, gaitasun handiko ikasleei arreta ematea eta laguntzeko eta malgutzeko mekanismoak, alternatiba metodologikoak eta beste neurri batzuk abian jartzea. Hezkuntza-inklusioa bermatzeko hartzen diren antolaketa-, metodologia- eta curriculum-neurriak Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioei jarraituko diete, pertsona guztiek hezkuntza-arrakasta lortu dezaten.

4. Konpetentzia-curriculumak ikaskuntza sakon eta funtzional jakin batera bideratuta dago, eta, hartara, ikasten dena askotariko inguruneetan erabili eta transferitu ahal izango da, denboran iraun ahalko du, orotariko testuinguruetan erabili ahal izango da eta problemak ebazteko aukera emango du.

5. Oinarrizko Hezkuntzan, arreta berezia emango zaio Oinarrizko Hezkuntza amaitzean ikasleen irteera-profilean ezarritako konpetentziak lortzeari eta garatzeari, eta ahozko eta idatzizko adierazpide zuzena sustatuko da, baita matematikaren erabilera ere. Irakurketaren ohitura sustatze aldera, jakintzagai guztien irakaskuntza-praktikan denbora eskainiko zaio irakurketari.

6. Ikaskuntzen integrazioa sustatze aldera, irakas-denboraren zati bat eskaini beharko zaio zeharkako proiektu adierazgarriak eta garrantzitsuak egiteari eta problemak modu kolaboratiboan ebazteari, ikasleen autoestimua, autonomia, gogoeta eta erantzukizuna indartu daitezten.

7. Arlo, jakintzagai edo eremu guztietatik zeharka sustatu behar dira genero-ikuspegia, bakearen aldeko hezkuntza, osasunerako hezkuntza, sentsibilitate estetikoak eta sorkuntza artistikoa, iraunkortasunerako eta kontsumo arduratsurako hezkuntza, elkarrekiko errespetua eta indarkeriazko edo diskriminaziozko jarrera eta portaeren prebentzioa, eta berdinen arteko kooperazioa.

8. Arreta berezia eskaini behar zaio haurren eta gazteen ongizate emozionalari. Arreta horretan sartzen dira ondo, harmonian eta lasai sentitzearen esperientzia subjektiboa eta zailtasunei aurre egiteak eta modu positiboan gaitzitzeak sortzen duen gogobetetasun-esperientzia pertsonala. Modu espezifikoan, arreta eskaini behar zaio indarkeria-motaren bat jasaten denean sortzen diren ondoez-egoerak identifikatzeari, bereziki indarkeria matxistari, LGTBifobikoari eta/edo arrazistari loturik dauden kasuetan.

9. Ikasteko prozesuaren erdigunean kokatzen da hizkuntza, informaziorako eta ezagutzaren eraikuntzarako sarbide-tresna da-eta. Hizkuntzen ikaskuntza konpetentzia-ikuspegi globalizatutik planteatzen da, zehazki hizkuntzen ikaskuntza integratua eta hizkuntzen eta jakintzen ikaskuntza integratua oinarri izango dituzten ikuspegi metodologikoen bidez.

10. Hizkuntza ofizialak soilik erabiliko dira atzerriko hizkuntzak ikasteko prozesuan laguntzeko. Prozesu horretan, ulermena, adierazpidea eta ahozko interakzioa lehenetsiko dira.

11. Konpetentzien araberako pedagogiaren ikuspegiaren aukera metodologikoen barruan, garrantzitsua da aintzat hartzea konpetentzien garapen integrala, egoera errealetan oinarritutako benetako jardueren bidez lan egitea eta abar.

12. Sail eskudunak ezarriko du zer baldintza bete beharko diren kualifikazio egokia duten irakasleek ikasle-talde berari Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailetan jakintzagai bat baino gehiago emateko.

13. Etapa honetan, ebaluazioa etengabea eta hezitzailea da. Halaber, ebaluazioa integratzailea, kolaboratiboa eta parte hartzekoa da. Hori dela eta, ikastetxeek eta irakasle-talde ebaluatzaileek bitarteko eta estrategia egokiak bermatu behar dituzte, ikasleak eta familiak ebaluazioari lotutako prozesuetan integra daitezen eta horietan aktiboki kolaboratu eta parte hartu dezaten.

14. Eskumena duen sailak behar diren neurriak sustatuko ditu, ikasleen tutoretza pertsonala eta hezkuntza-orientazioa, psikopedagogikoa eta profesionala funtsezko elementua izan daitezen Oinarrizko Hezkuntzako etaparen antolamenduan.

7. artikulua. Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak.

Oinarrizko Hezkuntzak ikasleengan honako hauek egiteko gaitasunak garatzen lagunduko du:

a) Beren betebeharrak ulertzea eta arduraz hartzea, beren eskubideak gainerakoekiko errespetuan ezagutu eta erabiltzea, pertsonen eta taldeen arteko tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna praktikatzea, elkarrizketan aritzea eta, hala, giza eskubideak finkatzea gizarte anitz baten balio komun gisa, eta herritartasun demokratikorako prestatzea

a) Nork bere burua erregulatzeko, ikasteko eta bakarka nahiz taldean lan egiteko ohiturak garatzea eta finkatzea, ikasketak eraginkortasunez egiteko beharrezkoa den baldintza gisa eta norbera garatzeko bitarteko gisa.

b) Genero-berdintasuna baloratzea eta sexu, genero, etnia, arraza edo gaitasunen arloko aniztasuna errespetatzea. Gizonen eta emakumeen arteko edonolako diskriminazioa dakarten estereotipoak errefusatzea. Sexu- eta ugalketa-eskubideak ezagutzea eta baliatzea, pertsona ororekiko errespetatua eta nork bere burua zaintzea kontuan izanik.

c) Nortasunaren esparru guztietan eta gainerakoekiko harremanetan gaitasun afektiboak indartzea, gatazkak modu baketsuan ebatzea eta indarkeria baztertzea, bereziki indarkeria matxista eta indarkeria LGBTfobikoa, baita edonolako aurreiritziak eta portaera sexistak ere.

d) Informazio-iturriak erabiltzeko oinarrizko trebetasunak garatzea, ezagutza berriak zentzu kritikoz lortze aldera. Oinarrizko konpetentzia teknologikoak garatzea eta horien funtzionamenduari eta erabilerari buruzko gogoeta etikoan aurrera egitea.

e) Ezagutza zientifikoa ulertzea zenbait diziplinatan egituratzen den jakintza integratu gisa, eta ezagutzaren eta esperientziaren arloetako arazoak identifikatu eta ebazteko metodoak ezagutzea eta aplikatzea.

- f) Nork bere buruaren gaineko konfiantza, parte-hartzea, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala eta espiritu ekintzailea garatzea, baita ikasten, planifikatzen, erabakiak hartzen eta erantzukizunak bere gain hartzen ikasteko gaitasuna ere.
- g) Euskarazko eta gaztelaniazko testu eta mezu konplexuak zuzen ulertzea eta adieraztea, ahoz eta idatziz.
- h) Atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan behar bezala ulertzea eta adieraztea.
- i) Norberaren kulturaren eta historiaren, eta euskal kulturaren eta historiaren oinarriko alderdiak ezagutu, baloratu eta errespetatzea, baita historia orokorra/unibertsala eta ondare artistikoa eta kulturala ere.
- j) Norberaren eta gainerakoen gorputzaren funtzionamendua ezagutzea eta onartzea, desberdintasunak errespetatzea, gorputzaren zaintza- eta osasun-ohiturak finkatzea eta ikasleen ohituretan heziketa fisikoa eta kirol-praktika txertatzea, norberaren eta gizartearen garapena errazte aldera. Sexualitatearen giza dimentsioa ezagutzea eta baloratzea, haren aniztasunean.
- k) Osasunarekin, kontsumoarekin, zaintzarekin, enpatiarekin eta izaki bizidunekiko (animaliak barne) eta ingurumenarekiko errespetuarekin lotzen diren gizarte-ohiturak modu kritikoa baloratzea, eta horiek kontserbatzen eta hobetzen laguntzea.
- l) Arte-sorkuntza estimatzea eta arte-adierazpenen hizkuntza ulertzea, zenbait adierazpide eta irudikabide erabiliz.
- m) Gizateriak planteatu eta Garapen Iraunkorrerako Helburuetan zehazten diren problematikez jabetzea.

8. artikulua. Hizkuntza-esparrua.

1. Hezkuntza-sistemaren hizkuntza-helburua da ikasle guztien komunikazio- eta hizkuntza-konpetentzia garatzea, eleaniztasunaren eta kulturartekotasunaren ikuspegitik. Derrigorrezko hezkuntza amaitzean, ikasle guztiek hizkuntza ofizialak ondo menderatu beharko dituzte, eta gaitasun-maila nahikoa izan beharko dute, gutxienez atzerriko hizkuntza batean. Halaber, elebitasuna finkatzea sustatuko da, euskararen erabilera bultzatuta.
2. Hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza antolatze eta horiek tratatzeko eta erabiltzeko irizpideak ikastetxeen autonomiaren esparruan zehaztuko dira, ikasleen eta beren ingurunearen errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta. Ikastetxeak hartzen dituen erabaki guztiak ikastetxearen hizkuntza-proiektuan eta curriculum-proiektuan zehaztu beharko dira.
3. Hezkuntza-komunitatearen jarduera guztietan euskara ohiko adierazpen-bidea izan dadin sustatu eta ziurtatuko da.
4. Komunikazio- eta hizkuntza-konpetentziaren garapena zeharka landuko da curriculum-arloen testuinguruan.
5. Euskal Hezkuntza Sistemari berandu sartzeko diren ikasle atzerritarren harrerak eta hizkuntza-arretak ikasle horien inklusioa ahalbidetuko duten prestakuntza, ikerketa eta garapenerako programa integralak eskatuko ditu.

9. artikulua. Ikasleek Oinarriko Hezkuntza amaitzerako izan behar duten irteera-profila eta funtsezko konpetentziak (I. eranskina)

1. Oinarrizko Hezkuntzak lagunduko du ikasleek irteera-profila lortzeko behar dituzten kompetentziak garatzen.
2. Ikasleek Oinarrizko Hezkuntza amaitzerako izan behar duten irteera-profilak bizitzaren esparru eta egoeretan moldatzeko gai den pertsonaren ereduari egiten dio erreferentzia. Era berean, ikasleek oinarrizko irakaskuntza amaitzean eskuratu eta garatu behar izan dituzten funtsezko kompetentziak finkatzen ditu. Ikasleek kompetentzia horiek garatzen jarraitu ahal izango dute etengabeko ikaskuntzaren bidez, eta kompetentzia horiek lagungarriak izango zaizkie helduen bizitzan sartzeko.
3. Irteera-profila da curriculum-arkitekturaren ardatza, kohesioa ematen duen matrizea, eta euskal hezkuntza-sistemaren Oinarrizko Hezkuntza osatzen duten etapek eta modalitateek bat egiten duten tokia. Horrenbestez, eskola-praktikan curriculum-erabakiak, estrategiak eta orientabide metodologikoak oinarritzen dituen elementutzat hartzen da, baita erreferentzia-elementutzat ere, ikasleen ikaskuntzen barne- eta kanpo-ebaluazioari begira. Irteera-profila etapako helburuekin eta arlo bakoitzean kokatutako kompetentzia espezifikoekin erlazionatuta dago.
4. Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak, irteera-profila erreferentziatzat harturik – erkidea da Euskal Autonomia Erkidegoko ikasle guztientzat–, behar den aholkularitza eskainiko die ikastetxeei, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan irteera-profil hori beren ikasleentzat egokitu dezaten.
5. Oinarrizko Hezkuntzan, ikasleek honako funtsezko kompetentzia hauek garatuko dituzte:
 - hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia,
 - kompetentzia eleaniztuna,
 - matematikarako kompetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniarietarako kompetentzia,
 - kompetentzia digitala,
 - kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa,
 - herritartasunerako kompetentzia,
 - ekintzailtza-kompetentzia,
 - kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako kompetentzia.
6. Dekretu honek ezartzen dituen gutxieneko irakaskuntzen xedea da irteera-profilean aurreikusitako funtsezko kompetentzien garapena bermatzea. Sail eskudunak ezarritako curriculumek eta ikastetxeek beren hezkuntza-proiektuetan egiten duten haien zehaztapenak ere irteera-profil hori hartuko dute erreferentetzat.

2. kapitulua. Curriculuma

10. artikulua. Curriculumaren alderdi orokorrak.

1. Dekretu honek Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak honako alderdi hauek hartzen ditu: helburuak, arloen edo jakintzagaien kompetentziak (funtsezkoak eta espezifikoak),

ebaluazio-irizpideak, oinarrizko jakintza gisa enuntziatutako edukiak, ikas-egoerak eta metodo pedagogikoak.

2. Dekretu honek Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzako etapako gutxieneko irakaskuntzak taxutzen dituzten curriculumaren oinarrizko alderdiak finkatzen ditu.

3. Ikastetxeek, beren autonomiaz baliatuz, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak garatu, eta, hala badagokio, osatu egingo dute. Zehaztapen hori Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren parte izango da.

4. Eremuen arabera taldekatzeek eremua osatzen duten arlo edo jakintzagaien konpetentzia espezifikokoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak errespetatu beharko dituzte.

5. Dekretu honen II. eta III. eranskinetan finkatzen dira arlo eta jakintzagai bakoitzerako konpetentzia espezifikokoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak.

6. Funtsezko konpetentziak eta konpetentzia espezifikokoak eskuratze eta garatze aldera, irakasle-taldeak sail eskudunak xedatzen dituen baldintzetan planifikatuko ditu ikas-egoerak. Irakasleei beren praktika errazte aldera, IV. eranskinean horiek diseinatzeko orientabideak enuntziatzen dira.

11. artikulua. Lehen Hezkuntzako arloak.

1. Ikuspegi globalerik, etapa honetako maila guztietan landu beharreko arloak dira:

	ARLOAK
Ikasle guztiek ikasi beharreko arloak	a) Euskara eta Literatura. b) Gaztelania eta Literatura. c) Atzerriko Lehen Hizkuntza. d) Matematika. e) Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza. f) Arte Hezkuntza. g) Heziketa Fisikoa. h) Tutoretza. i) Balio Zibiko eta Etikoak (seigarren maila).

2. Balio Zibikoak eta Etikoak arloa Lehen Hezkuntzako seigarren mailan emango da.

3. Arte Hezkuntza bitan banatu ahal izango da, Musikan eta Plastikan.

4. Heziketa Fisikoaren arloa etapa osoan zehar indartuko da. Lehen zikloko bi mailatan, asteen Heziketa Fisikoko hiru saio egingo dira. Hurrengo zikloetan, arlo horri eskainiko zaion ordu-karga gehitzea lehenetsiko da.

5. Ikastetxeek atzerriko bigarren hizkuntza bat ere eskain dezakete ikastetxearen hizkuntza-proiektuaren barruan. Era berean, ikastetxeek komunitaterako zerbitzu-proiektu bat edo zeharkako proiektu bat ere egin ahal izango dute, beren

autonomiaren garapenean astean duten ordu-ehunekoaren barruan.

6. Oro har, arlo guztiak Lehen Hezkuntzako arlo guztietan konpetentzia duen maisu/maistra bakar batek emango ditu, taldeko tutoreak. Musika, Heziketa Fisikoa eta Atzerriko Hizkuntza irakasteko, dagokien espezializazioa edo kualifikazioa beharko da. Balio Zibiko eta Etikoetako Heziketa arloa taldeko tutoreak emango du, lehentasunez.

12. artikulua. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako jakintzagaiak.

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa jakintzagaitan eta eremutan banatzen da, eta lau maila ditu.

2. Hezkuntza Sailak eremuetan multzokatutako jakintzagaien antolaketa sustatuko du, gutxienez lehenengo bi mailetan, eta Dekretu honetan jakintzagai bakoitzerako ezarritako konpetentzia espezifikoen, ebaluazio-irizpideen eta oinarrizko jakintzen garapena bermatuko du. Curriculum-proiektuan islatuko da eremuen araberako antolaketa, eta proiektu horretan zehaztuko dira jakintzagaien zerrenda eta hura osatzen duten curriculum-elementuak.

3. Maila bakoitzeko jakintzagaien tipologia eta antolaketa honako taula honetan islatzen da:

JAKINTZAGAIEN TIPOLOGIA	MAILAK		
	1.	2.	3.
Ikasle guztiek nahitaez ikasi beharreko jakintzagaiak.	a) Euskara eta Literatura. b) Gaztelania eta Literatura. c) Atzerriko Lehen Hizkuntza. d) Matematika. e) Natura Zientziak.	a) Euskara eta Literatura. b) Gaztelania eta Literatura. c) Atzerriko Lehen Hizkuntza. d) Matematika. e) Natura Zientziak. f) Teknologia eta Digitalizazioa. g) Geografia eta Historia. h) Heziketa Fisikoa.	a) Euskara eta Literatura. b) Gaztelania eta Literatura. c) Atzerriko Lehen Hizkuntza. d) Matematika. e) Biologia, Geologia. f) Fisika eta Kimika. g) Teknologia eta Digitalizazioa. h) Geografia eta Historia. i) Heziketa Fisikoa.
Aukerako jakintzagai bat, ikasleek hautatzeko.	a) Ongizate Fisikoa eta Emozionala. b) Teknologiaren eta Digitalizazioaren Hastapenak.	a) Ongizate Fisikoa eta Emozionala. b) Pentsamendu Autonomo eta	a) Ongizate Fisikoa eta Emozionala. b) Pentsamendu Autonomo eta

		Kritikoaren Hastapenak.	Kritikoaren Hastapenak. c) Kultura klasikoa. d) Kultura zientifikoa. e) Adierazpide artistikoa. f) Atzerriko Bigarren Hizkuntza.
	c) Atzerriko Bigarren Hizkuntza.	c) Atzerriko Bigarren Hizkuntza.	
Derrigorrezko jakintzagaia 1. mailatik 3. mailara	Musika eta/edo Hezkuntza Plastikoa eta Ikus-entzunezkoa.		

4. Laugarren mailan, ikasleek honako jakintzagai hauen curriculum-edukia ikasiko dute:

JAKINTZAGAIAK	4.
Ikasle guztiek nahitaez ikasi beharreko jakintzagaiak.	a) Euskara eta Literatura. b) Gaztelania eta Literatura. c) Atzerriko Lehen Hizkuntza. d) Geografia eta Historia. e) Matematika. f) Heziketa Fisikoa.
Aukerako hiru jakintzagai, ikasleek hautatzeko.	a) Biologia eta Geologia. b) Fisika eta Kimika. c) Latina. d) Digitalizazioa. e) Adierazpide Artistikoa. f) Teknologia. g) Prestakuntza eta Orientazio Pertsonala eta Profesionala. h) Musika. i) Atzerriko Bigarren Hizkuntza. j) Ekonomia eta Ekintzailtza.
Aukerako jakintzagai bat , ikasleek hautatzeko.	a) Arte Eszenikoak. d) Kultura Zientifikoa. c) Lanbide Jarduerari Aplikatutako Zientziak. d) Matematika Lantegia. e) Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikatutako Filosofia.

5. Aukerako jakintzagaien eskaintzaren barruan, ikastetxeek jakintzagai hauek eskainiko dituzte: (a) lehen mailan: Ongizate Fisikoa eta Emozionala; Teknologiaren eta Digitalizazioaren Hastapenak; eta Atzerriko Bigarren Hizkuntza; (b) bigarren mailan: Ongizate Fisikoa eta Emozionala; Pentsamendu Autonomo eta Kritikoaren Hastapenak; eta Atzerriko Bigarren Hizkuntza; (c) hirugarren mailan: Ongizate Fisikoa eta Emozionala; Kultura Klasikoa; eta Atzerriko Bigarren Hezkuntza. Gainera, lau mailetan, ikastetxeek –beren autonomiaren garapenean– aukerako jakintzagaien bat gehiago eskaini ahal izango dute. Hezkuntza Sailak proposatzen ez dituen jakintzagaiak badira, aurrez zuzendaritza eskudunaren baimena lortu beharko da. Aukerako jakintzagai guztiak, ikastetxeak hala ezartzen badu, lan monografiko gisa konfiguratu daitezke edo komunitatearentzako zerbitzu batekin lankidetzan aritzeko proiektu gisa.

6. Ikaskuntza-egoeretatik abiatuta ematen den irakaskuntzari esker, edozein maila, arlo, jakintzagai edo eremutako ikastaroak programatu daitezke.

7. Laugarren mailak izaera orientatzailea du, prestakuntza akademikorako zein profesionalerako. Ikastetxeek laugarren atalean aipatzen diren jakintzagaiak taldekatu ahal izango dituzte, ikasleak etorkizuneko derrigorrezko hezkuntzaren ondoko aukeretara bideratzeko, hau da, batxilergoko modalitate desberdinetara edo lanbide-heziketako esparru desberdinetara. Ikasleek, ezartzen diren aukeretako edozeinen bidez, irteera-profilean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako ezarritako konpetentzien eskuratze-maila lortu ahal izango dute. Gainera, ikasketa-adar guztietan bi sexuen presentzia orekatua sustatzearen alde egingo da.

3. kapitulua. Kudeaketa pedagogikoa

13. artikulua. Ikastetxeen autonomia.

1. Hezkuntza Sailak ikastetxeen pedagogia- eta kudeaketa-autonomia sustatuko du. Gainera, irakasleen talde-lana eta ikerketa-jarduera sustatuko du, heziketa-praktikatik abiatuta.

2. Ikastetxeen autonomia islatzen da, adibidez, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua garatzeko erreferentzia diren proiektu instituzionalen prestaketan.

3. Ikastetxe bakoitzak bere curriculum-proiektua garatuko du. Horretarako, dekretu honen VI. eranskinean finkatutako asteko ordutegiaren ehuneko bat erabili ahal izango du modu autonomoan kudeatzeko. Taldeak eta jakintzagaiak malgutasunez antolatu ahal izango dituzte, ikasleen ezaugarrien arabera egokienak diren antolaketako eta aniztasunari arreta emateko neurriak hartu ahal izango dituzte; eta arlo bereko jakintzagaiak batera ematea eskatzen duten antolaketa didaktikoak ezarri ahal izango dituzte.

4. Ikastetxeek Sail eskudunak ezarritako curriculumak zehaztu edo egokituko dituzte eta beren Curriculum Proiektuan txertatuko dituzte. Proiektu horrek herritartasun aktibora bideratutako konpetentzia-ikaskuntzaren berezko printzipioak, helburuak eta metodologia sustatu eta garatuko ditu.

5. Zuzendaritza-taldeek, beren autonomia esparruaren barruan, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea sustatuko dute, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan ezarritako konpromisoak bete daitezzen bultzatze aldera.
6. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren helburuak erdieste aldera, zuzendaritzek koordinazio- eta kooperazio-harremanak ezarriko dituzte hurbileko beste erakunde batzuekin, bereziki udalekin.
7. Ikastetxeek beren inguruneko erakundeekin kolaboratuko dute, hizkuntza-normalizazioko planak susta daitezzen.
8. Ikasleek Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren prestaketan parte har dezaten sustatuko da.
9. Ikastetxeek familien parte-hartzea eta inplikazioa sustatuko dute. Horretarako, ikastetxeek eta guraso-elkarteek prestakuntza-ekintzak garatu ahal izango dituzte familientzat eta legezko tutoreentzat, eta, horretarako, curriculumean ezarritako inklusio-eta hezkidetzaren printzipioak kontuan hartuko dituzte.

14. artikulua. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua.

1. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak ikastetxearen autonomiatik landutako hezkuntza-aukera jasotzen duen proposamen integrala barne hartuko du, baita hezkuntza-komunitateak ikastetxe horretan esku-hartzeko prozesua koherentziaz zuzentzeko erreferentzia gisa balio duten jarraibide nagusiak ere.
2. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak honako alderdi hauek jasoko ditu: ikastetxearen identitate-printzipioak, ikastetxearen ezaugarriekin eta balioekin; lortu nahi dituen hezkuntza-helburuak, ikastetxearen printzipioen arabekoak; ikasleek lortu behar dituzten funtsezko kompetentziak, ikasleen ezaugarrien arabekoak; oinarrizko irizpideak eta ildo estrategiko nagusiak; eta jarduteko lehentasunak, hizkuntzaren, curriculumaren eta antolaketaren arloan garatuko direnak –hori guztia ikastetxearen testuinguruaren arabera–.
3. Ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluari edo Ordezkaritza Organo Gorenari edo itunpeko ikastetxe pribatuetako titularrari dagokie Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua onartzea. Nolanahi ere, jendaurrean jarri beharko da.

15. artikulua. Ordutegia.

1. Ikastetxe bakoitzak arloen eta jakintzagaien artean banatuko ditu etapa bakoitzeko orduak, betiere VI. eranskinean gutxienezkotzat jotzen den ordu-kopurua errespetatuta. Aukera hori baliatzen ez duten ikastetxeek eranskin berean adierazitako erreferentziazko ordutegi bat jarraituko dute.
2. Lehen Hezkuntzako maila bakoitzari urtean 875 ordu dagozkio, gutxienez. Ikasleen eskola-jarduerak asteleheneetik ostiralera egingo dira, goizez eta arratsaldez. Maila bakoitzean, astean 25 ordu izango dira gutxienez, egunero 30 minutuko atsedenaldia barne (lehen zikloan eguneko 45 minutura arte luzatuko da). Arlo bakoitzari esleitutako ordutegia ulertuko da arlo horietako bakoitzean lan egiteko behar den denbora gisa, etaparen izaera orokorra eta integraztailea alde batera utzi gabe.
3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila bakoitzari urtean 1.050 ordu dagozkio, gutxienez. Oro har, ikasleen eskola-jarduerak asteleheneetik ostiralera egingo dira,

goizez eta arratsalde, eta maila bakoitzean astean 30 ordu gutxienez izango dira, egunero 30 minutuko atsedena barne.

4. Goizeko eta arratsaldeko lanaldien arteko tartea ez da ordu eta erditik beherakoa izango Lehen Hezkuntzan, ezta ordubetetik beherakoa ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

5. Ikastetxeek irakastorduko tarte bat erabiliko dute –formulatu diren arloetan, jakintzagaietan edo eremuetan edo modu autonomoan kudeatzen duten ordutegiko tartean– ikasleentzat adierazgarriak diren proiektuak egiteko, betiere garapen iraunkorrerako hezkuntza eta tokiko eta munduko herritartasuna bultzatuko dituen zeharkako ikuspegi globalizatzailearekin.

6. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek ordutegia malgutzeko aukera aurreikusi behar dute, ikasleek dituzten egoera berezietan erantzun dakien, besteak beste, osasuna, eskolazte partekatua edo ikasketen aldiberekotasuna direla eta, indarrean dagoen araudiaren arabera.

16. artikulua. Familien eta legezko tutoreen inplikazioa eta kolaborazioa hezkuntza-prozesuan.

1. Gurasoek eta legezko tutoreek ikasleen eskola-hezkuntzaren jarraipena egiteko eta eskola-hezkuntzan parte hartzeko eskubidea dute.

2. Gurasoek eta legezko tutoreek hezkuntza-prozesuan lagundu eta parte hartu beharko dute, eta, hartara, ikastetxeek ikasleen aurrerabidea errazteko hartzen dituzten laguntza-neurri indargarrietan kolaboratuko dute.

3. Era berean, ikastetxeek eta familia edo legezko tutoreek, modu indibidualean, berrikusi eta ezarri ahal izango dituzte hasieran ezarri diren konpromisoak aldatzeko buruzko akordioak, zehazki ikaslearen hezkuntza- edo bizikidetzaren prozesua hobetzera edo modu indibidualean atzemandako problemak konpontzera bideratzen diren konpromisoak.

17. artikulua. Irakasle-taldea.

1. Talde-gela berean esku hartzen duten irakasleek osatzen dute talde horren irakasle-taldea.

2. Antolaketa-neurrien bidez, ikastetxeek Oinarrizko Hezkuntza osoan talde bakoitzean parte hartzen duten irakasleen kopurua murrizteko baldintzak ezarriko dituzte, batik bat Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi mailatan eta ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan. Helburu horrekin, kualifikazio egokia duten irakasleek jakintzagai bat baino gehiago emango dituzte.

3. Zuzendaritza-taldeak talde-lana, gogoeta-praktika eta hezkuntza-ikerketak sustatuko ditu koordinazio-bileren bidez, betiere irakaskuntza-ekintzaren testuinguruan. Esparru horretan, irakasle-taldeko koordinazio-bileretarako ordutegi espezifikoak aurreikusi behar dira irakasleek ikastetxean egon behar duten aldirian.

4. Behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, Lehen Hezkuntzako tutore bakoitzak gutxienez bi ikasturte emango ditu talde/gela berarekin.

5. Eremuen arabera lan egiten denean, eta ahal den guztietan, tutorea arduratuko da eremuetako batez.

6. Ikastetxeko zuzendaritza taldeari dagokio talde/gelei, zikloei, arloei, jakintzagaiei edo eremuei irakasleak esleitzea. Ikastetxean gerora sortutako beharrei erantzute aldera, ikastetxeko zuzendariak aldi baterako eta behar bezala justifikatuta aldatu ahal izango du esleipen hori, baita irakastorduen banaketa ere.

18. artikulua. Irakasleen kompetentzia-profila, prestakuntza, koordinazioa eta ebaluazioa.

1. Irakasleek kompetentzia-profil egokia izan beharko dute beren funtzioen berezko erantzukizunak baldintza ezin hobeetan beren gain hartzeko eta, bereziki, ikasleek irteera-profilari lotutako kompetentziak lortu ditzaten erraztearekin lotzen diren erantzukizunak.

2. Hezkuntza Sailak arauzko xedapenen bidez zehaztuko du irakasleen kompetentzia-profila.

3. Irakasleen prestakuntzaren helburua da haurrari garapen pertsonal eta afektiboan eta kompetentzien garapenean laguntzeko behar den kompetentzia-profila lortzea. Prestakuntza horrek irakatsi eta ikasteko prozesuen ikerketa, berrikuntza, garapen eta ebaluazioko prozesuak barne hartu behar ditu; horretarako, praktikari buruzko hausnarketatik abiatu behar du, eta prestakuntza-sareetan parte hartzea barne hartu behar du. Prestakuntza-prozesuetan arreta berezia eskainiko zaie hezkuntza inklusiboari, hezkidetzari, aniztasun afektibo-sexualari eta hezkuntza-premia bereziak eta espezifikoa dituzten kolektiboentzako arreta egokiari. Irakasleek beren etengabeko prestakuntza planifikatu beharko dute beren ikastetxearen premien barruan eta beren praktikari, autoebaluazioari, koebaluazioari edo beste ebaluazio-prozesu batzuei buruzko hausnarketa-prozesuen ondorioetatik abiatuta.

4. Hezkuntzaren arloko sail eskudunak sustatutako prestakuntza-ekintzen planteamenduak ezaugarri hauek ditu:

a) Ikastetxea prestakuntzarako plangintzaren ardatz gisa ikus dadin sustatzea.

b) Hezkuntza-ekintzan oinarritzea eta berrikuntza sustatzea, irakaskuntza-praktikari buruzko azterketaren eta hausnarketaren bidez.

5. Hezkuntza-komunitateko kide guztien koordinazioa eta kooperazioa sustatuko dira ikastetxeko hezkuntza- eta antolaketa-arloetan. Era berean, inguruneke beste ikastetxe eta hezkuntza-eragile batzuekin koordinatzeko eta kooperatzeko ekintzak sustatuko dira. Irakasleek prozesu horretan kolaboratu eta inplikatu beharko dute.

6. Irakasleen kompetentzien ebaluazioa hezkuntza-arloan eskumena duen sailak egingo du. Ebaluazio horretan irakasleek ere parte hartuko dute, beren garapen profesionala hobetzen eta ebaluazio horretatik eratorzen diren prestakuntza-ekintzak planifikatzen laguntzeko.

19. artikulua. Tutoretza eta orientazioa.

1. Hezkuntza-orientazioa irakaskuntza-jardueran txertatutako laguntza-prozesu jarraitua eta sistematikoa da. Hezkuntza-orientazioaren helburua da ikasleei laguntzea beren proiektu pertsonalaren eta profesionalaren jabe izateko eta herritartasuna baliatzeko behar dituzten oinarriko kompetentziak garatzen eta eskuratzen.

2. Hezkuntza-komunitate osoaren eskumenekoa da; berriaz irakasle-taldeari dagokio eta bereziki tutoreari. Azken hori izango da bere taldeko ikasleen orientazio akademiko eta profesionalaren azken arduraduna, eta bertan eskolak ematen dituzten irakasleak koordinatzeaz eta familiekin edo legezko arduradunekin komunikazio arina ezartzeaz arduratuko da, bereziki ikasle adingabeen kasuan. Hori guztia irakasle orientatzailearen edo aholkulariaren kolaborazioarekin egingo da.
3. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak ezarriko ditu hezkuntza-orientazioa arautzen duten printzipioak, eta printzipio horien arabera zehaztuko du tutoretza-ekintzaren ereduak.
4. Ikastetxeko zuzendaritzak zainduko du tutoretzako eta hezkuntza-orientazioko ekintzak ikastetxeko profesional guztien eta gainerako hezkuntza-komunitatearen artean modu banatu eta koordinatuan gauzatu daitezen; eta, horretarako, hezkuntza-etapa bakoitzaren ezaugarrietara egokituko da.
5. Hezkuntza-orientazioak, Ikastetxearen Orientazio eta Tutoretza Urteko Planean txertatuta, ikasleen garapen integrala bermatzen duten jardura programatuen, sistematizatuen eta ebaluagarrien multzoa jasoko du, baita eskolatzean zehar laguntza pertsonalizatua ere, norik bere burua ezagutzea eta autonomia garatzea bultzatzeko asmoz, erabakiak hartzeko prozesuan gida ditzan ikasleak. Gainera, irakasle-taldeek ikasleen ikaskuntza eta autonomia errazten duten estrategia didaktikoak eta pedagogikoak sartu beharko dituzte.
6. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan, orientazio-prozesuak barnean hartuko ditu orientazio pertsonal, sozial, akademiko eta profesionaleko jarduerak, ikasleek beren burua ezagut dezaten eta erabakiak har ditzaten beren prestakuntza-ibilbidea eta bizi-proiektua eraikitzeko prozesuan. Horretarako, lan-orientazioen aurkikuntza sustatuko da, estereotipo sexistarik gabeko interesak eta bokazioak sortzen laguntzeko.
7. Behar bezala garatutako tutoretza-ekintzak bermatzen du taldeko ikasle bakoitza bere indibidualtasunean eta aniztasunean hartuko dela aintzat. Talde bakoitzeko tutorea da laguntzeko, desberdintasunak hautemateko, inklusioa indartzeko eta aniztasunerako aukera gehien dituen hezkuntza-komunitateko pertsona.
8. Tutoretza-ekintza funtsezko kompetentziak lortzen laguntzen duten eta, aldi berean, ikasleen ibilbide pertsonala, akademikoa eta profesionala –bilakaera-unearen eta dagoen hezkuntza-etaparen arabera– modu progresiboan garatu ahal izateko behar diren hezkuntza-ekintza multzoa da.
9. Tutoretza-ekintzak jarraipen indibiduala konbinatzen du irakasle guztien jarraipen pertsonalizatuarekin eta taldeko jarraipenarekin, baita ikasleen gizarte-kohesioan laguntzen duten proposamen pedagogikoen aplikazioarekin ere. Halaber, ikasleek beren ikasprozesuan eta beren garapen pertsonalean eta sozialean inplikazio aktiboa izan dezaten sustatzen du.
10. Taldeko tutoretza-saioen edukiak lau gai-multzoren inguruan antolatuko dira: garapen pertsonala, pertsonen arteko harremanak, ikasprozesuak eta orientazio akademiko-profesionala. Multzo bakoitzaren edukia aldatu egingo da Oinarrizko Hezkuntzaren etapetan zehar, ikasleen beharretara eta interesetara egokitu dadin.

11. Ikastetxearen antolaketa- eta funtzionamendu-araudiak, eskura dauden baliabideen bidez, bermatu beharko ditu tutoretza-ekintzaren koherentzia eta jarraitutasuna, ikasleak eskolatzen diren bitartean.

12. Ikasleen tutoretza irakaskuntza-funtzioaren parte da. Ikasle guztiek izan behar dute tutore bat, eta tutore hori arduratuko da dagozkion ikasleen hezkuntza-prozesua orientatzeaz, maila indibidualean zein kolektiboan. Tutoreak ikasleen garapen pertsonalaz, haien ongizateaz eta funtsezko kompetentzien lorpen progresiboaz arduratu beharko du bereziki.

13. Tutoreari dagokio ikasleei eta beren familiei edo legezko tutoreei ikasleen eskola-jarduerei buruzko guztiaren berri ematea, haiek irakasleengana edo ikastetxeko gobernu-organoetara jotzeko duten eskubidea ukatu gabe.

14. Tutorearen eskumena da beharrezkoa den dokumentazio akademikoa formalizatu eta betetzea eta irakasle-taldea koordinatzea, ikasleen kudeaketa pedagogikoari dagokionez.

15. Ikasleen tutorea arduratuko da, beharrezkoa denean, irakasle-taldearen jarduketan pertsonalizatuaren prestaketaz, ikastetxeko aholkulariekin edo orientatzaileekin kolaborazioan, eta, hala badagokio, kanpoko hezkuntza-zerbitzuen aholkularitzarekin. Gainera, horren jarraipena egingo du, eta familiekin, legezko tutoreekin eta ikaslearekin solaskide nagusi gisa arituko da.

16. Oinarrizko Hezkuntza osoan zehar, irakasle-taldeen ikasle bakoitzaren informaziorik garrantzitsuena jaso eta eskualdatuko dute, hurrengo mailara eta etapa-aldaketara eramateko. Ikastetxeak informazioa jasotzea eta eskualdatzea erraztuko duen erregistro bat izan beharko du. Tutoreak du erregistro horretan jasotzen den informazioa eguneratzeko eta kudeatzeko erantzukizuna. Erregistro horretan sartuko dira, besteak beste, erdietsi den kompetentzien lorpen-mailari buruzko datuak eta jaso diren errefortzu-neurriak eta laguntzak.

17. Ikasleek eta beren familiek edo legezko arduradunek ebaluazio-txosten indibiduala jaso behar dute maila bakoitza amaitzean. Txosten hori irakasle-taldeak egiten du eta ikaslearen ikaskuntzei buruzko informazioa biltzen du, eta, bidezkoa bada, hurrengo mailarako gomendioak eta hezkuntza-arloko errefortzu-neurrien proposamenak. Txosten hori ikasleen espedientearekin batera gordeko da, eta ikastetxean aldaketa bat gertatzen denerako ezarritako koordinazio-mekanismoen bidez jarriko da.

18. Ikastetxeko irakasle aholkulariek edo orientatzaileek tutorearekin eta irakasle-taldeekin kolaboratuko dute orientazio- eta tutoretza-ekintzen plangintzan eta jarraipenean, eta ikasteko zailtasun espezifikoaren detekzioan eta analisisan, eta aholkuak emango dituzte ikasle guztien eskola-arrakasta bermatuko duten hezkuntza-erantzun inklusiboan inguruan. Halaber, gizartearen, hezkuntzaren eta komunitatearen arloko ikastetxeaz kanpoko eragile eta babesleekiko kolaborazioa koordinatuko dute, familiei zein ikasleei eskola-ibilbidean laguntza emango diete, eta haien ahalmen eta interesak ahalik eta hobekien garatzera bideratutako erabakiak hartzeko orientazioa eskainiko dute.

19. Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak orientabideak emango dizkie ikastetxeei Oinarrizko Hezkuntzako Orientazioko eta Tutoretza Ekintzako Plana egiteko eta garatzeko.

20. artikulua. Trantsizioa.

1. Mailaz pasatzean eta etapen eta ikastetxeen arteko trantsizioan, ikastetxeek hezkuntza-coherentzia eta prestakuntzaren jarraitutasuna erraztu eta ziurtatuko dituzten informazioa koordinatzeko eta eskualdatzeko mekanismoak bermatu behar dituzte.
2. Ikastetxeek koordinaziorako eta informazioaren eskualdaketarako mekanismoak aurreikusi behar dituzte, etapen arteko trantsizioetan ikasleen hezkuntza-prozesuaren jarraitutasuna berma dadin, ikaslea ikastetxez aldatu ala ez. Jatorrizko eta helmugako ikastetxeetako profesionalen arteko kolaborazioak ezar ditzaketen mekanismo horiek ezinbestekoak dira hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleentzat.
3. Lehen Hezkuntzako ikastetxeek ikaslearen historia akademikoaren kopia bat eta etaparen amaierako banakako txostena aurkeztu beharko dituzte ikasleak ikasketak egingo dituen Bigarren Hezkuntzako ikastetxean, ikastetxeak alde aurretik eskatuta. Ikastetxe atxikiak barne hartu beharko dituzte, batetik, ikasleen Lehen Hezkuntzako azken mailako tutorearen eta, bestetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailako tutorearen edo Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko ordezkari baten arteko elkarrizketak, ikasleen ikaskuntza-ibilbideari buruzko informazioa osa dadin. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, aholkularitzako eta orientazio psikopedagogikoko taldeek ere parte hartuko dute.

21. artikulua. Hezkuntza-erantzuna hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan.

1. Eskola inklusiboaren esparruan, ikasle guztiak dira hezkuntza-arretaren subjektuak, eta, testuinguru arruntan, hezkuntzarako sarbidea bermatzeko eta hezkuntza-arrakasta bermatzeko beharrezkoak diren neurri eta laguntzen onuradun izan behar dute, ekitate-baldintzetan eta aukera-berdintasuneko baldintzetan.
2. Aniztasunari erantzuteko neurriek ikasleen hezkuntza-premiei erantzun behar diete ingurune normalizatu eta inklusibo batean. Horretarako, ikasleen interesak, motibazioak eta ikasteko gaitasunak kontuan hartuko dira, eta Oinarrizko Hezkuntzaren eta dagokion titulazioaren helburuak lortzeko bidea izan behar dute.
3. Aniztasunari erantzuteko neurriak dira ikasteko eta parte hartzeko oztupoak gainditzera zuzentzen diren hezkuntza-jarduketa guztiak. Eskolak ikasleen aniztasunari erantzun diezaion profesionalak erabiltzen duten testuinguruko edozein elementu (pertsonala, antolaketakoa, materiala edo metodologikoa) jotzen da laguntzat.
4. Hezkuntza-premiak goiz atzematea oinarrizko jarduketa-printzipio bat da, eskolatzearen hasieratik eta Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzan zehar. Irakasle eta hezitzaile guztiek aktiboki parte hartu beharko dute inklusiorako oztupoak goiz atzematen. Hezkuntzaren arloko sail eskudunak onartutako programak eta protokoloak aginduzkoak izango dira, eta funts publikoekin sostengatzen diren ikastetxe guztietan aplikatu beharko dira.
5. Ikastetxeei dagokie Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren ikuspegian oinarritutako bizikidetzaren eta ikaskuntza-ingurune seguruak sortzea eta etapen eta prestakuntza-ibilbideen arteko trantsizioak eraginkortasunez ziurtatzea ere.

22. artikulua. Curriculum Dibertsifikazioko Programak.

1. Curriculum Dibertsifikazioko Programak aniztasunari erantzuteko neurri bat dira, eta ikasle hauei zuzentzen zaizkie: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren edo

laugarren mailetan eskolatuta egonik, ikasteko zailtasun bereziak dituzten, ikasteko erritmo desberdinak dituzten edo ikasketarik edo ahaleginik ezari egotzi ezin zaizkion eskola-ingurunera egokitzeko erritmo desberdinak dituzten ikasleei, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzen laguntze aldera.

2. Programa horietan sartu ahal izango dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera, sartzen diren ikasle guztiek, beren ebaluazio akademikoaz eta ebaluazio psikopedagogikoaz gain –ikasleei eta haien gurasoei edo legezko tutoreei entzun ondoren egindakoa–, programan sartzeko irakasle-taldearen proposamena jasoko duen ikasturte amaierako Orientazio Departamentuaren txostena ere eduki beharko dute. Txosten horrek, gainera, helburuen lorpen-maila eta ezarritako kompetentzien eskuratze-maila barne hartuko ditu.

3. Curriculum Dibertsifikazioko Programek, oro har, bi ikasturteko iraunaldia dute, hirugarrenetik etapa amaitu arte. Salbuespen gisa, laugarren maila amaitzean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko moduan ez dauden ikasleak proposatu ahal izango dira, baldin eta irakasle-taldeak uste badu neurri horrek titulu hori lortzeko aukera emango diela, etaparako aurreikusitako iraupen-mugak gainditu gabe.

4. Programa horiek oro har ezarritakoaz bestelako nolabaiteko curriculum-antolaketa behar dute. Diziplina arteko eremu edo proiektuen bidez garatuko dira. Bi kasuetan, programan parte hartzen duten ikasleen taldeko eta bakarkako tutoretza-ekintza sustatuko da, eta hori Tutoretza Ekintzako Planean jasoko da.

5. Diziplina arteko proiektuen bidez antolatuz gero, programako ikasleek talde arruntetan egingo dituzte hirugarren eta laugarren mailetako jakintzagai guztiak.

6. Eremuen arabera antolatutako programa bat aukeratuz gero, ikasleek bi eremu espezifiko eta etaparako ezartzen diren eta eremuetan jasotzen ez diren hiru jakintzagai egingo dituzte (azken horiek talde arruntetan egingo dituzte oro har). Gainera, izaera praktikoko eremu bat jarri ahal izango da. Bi eremu espezifiko horiek honela osatuko dira:

a) Hizkuntza- eta gizarte-eremua: Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Atzerriko Hizkuntza eta Geografia eta Historia jakintzagaien oinarrizko alderdiak barne hartzen ditu.

b) Eremu zientifiko-teknologikoa: Matematika; Biologia, Geologia; Fisika eta Kimika; eta Teknologia eta Digitalizazio jakintzagaien oinarrizko alderdiak barne hartzen ditu.

7. Curriculum Dibertsifikazioko Programa bat egiten duen ikasle orok izan beharko du Jarduketa Plan Pertsonalizatu bat.

8. Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak ezarriko du, deialdi espezifikoaren bidez, programa horiek zer baldintzatan garatu beharko diren.

23. artikulua. Eskolatze osagarriko programak.

1. Eskolatze Osagarriko Programak aniztasunari erantzuteko neurri eta laguntza osagarriak dira, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskolatuta dauden eta gehienez 15 urte dituzten ikasleei zuzentzen zaizkie –programa hasten den urteko abenduaren 31n beteta–.

2. Programa horiek egiturazkoak izango dira, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aniztasunari erantzuteko aurreikusitako neurri guztiak agortu ondoren, baldintza pertsonalen edo eskola-historiaren ondorioz ikaskuntzarako eta partaidetzarako oztopoak dituzten ikasleak barne hartuko dituzte.

3. Hezkuntza-prozesuarekiko, ikaskideekiko, irakasleekiko eta gizarte-ingurunearekiko jarrera positiboak garatzea dute helburu; hartara, ikasleek, lehentasunez, pertsona- eta gizarte-egokitzapenean aurrera egin ahal izango dute, eta, aldi hori bukatuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak garatzeko prozesuan sartu ahal izango dira.

4. Eskolatzeko Osagarriko Programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten eta funts publikoekin sostengatzen diren ikastetxeetan garatuko dira, edo hezkuntza-gaietan eskumena duen sailarekin arlo horretako hitzarmenak edo akordioak dituzten gizarte- eta hezkuntza-arloko erakunde eta entitateetan, egiten dituen deialdien arabera.

24. artikulua. Laguntza-premia orokortuak dituzten ikasleentzako Laguntza Intentsiboko Programa.

1. Programa hau egiturazkoa da, eta ezohiko baliabide espezifikoak da hezkuntza-premia berezi iraunkorrek dituzten ikasleentzat, larritasun-maila larria dutenentzat, muga funtzional garrantzitsuak dituztenentzat eta eskolatzeko erantzun espezializatua, intentsiboa eta pertsonalizatua behar duten ikasleentzat.

2. Laguntza Intentsiboko Programak 16 urtera arteko ikasleei emango die arreta. Ikasle bakoitzak Jarduketa Plan Pertsonalizatua izango du. Plan horren erreferentzia izango dira garapen pertsonalerako eta ikaskuntza funtzionalak eskuratzeko beharrezkoak diren kompetentzia eta trebetasun moldakorrak. Ikasle bakoitzaren Planean definitzen diren neurriek hezkuntza-espazio komunean ahalik eta parte-hartze handiena izatea erraztuko dute, eta ikastetxearen eta komunitatearen baliabideak kontuan hartuko dituzte, beren aurrerapen pertsonalerako eta ikaskuntzetarako laguntza nagusi gisa.

25. artikulua. Helduarora Igarotzeko Programak.

1. Helduarora Igarotzeko Programak desgaitasun larri bati lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei zuzentzen zaizkie, baldin eta, derrigorrezko eskolatzeko-aldia amaitu ondoren, Oinarrizko Lanbide Heziketan sartzen ez badira. Ohiko izaeraz, ikasleei gehienez ere lau ikasturtetan emango zaie arreta, 20 urte arte izan arte, oro har. Salbuespen gisa, eskolatzeko 21 urtera arte luzatzeko baimena eman ahal izango da, betiere irakasle-taldeak uste badu Helduarora Igarotzeko Plan Pertsonalizatuan ezarritako oinarrizko kompetentziak lortu ditzaketela.

2. Programa horiek Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan emango dira, Ikastetxearen Curriculum Proiektuan integratutako berriazko programazioa izango dute eta ikasle bakoitzak Jarduketa Plan Pertsonalizatua izango du. Plan horretan bilduko dira bizitza baterako sarbide egokia izateko, ingurune komunitarioan modu aktiboan sartzeko, lan-munduratzeko eta ongizate pertsonalerako beharrezkoak diren kompetentzia espezifikoak eta zeharkakoak bermatuko dituzten helburuak. Programak ikasgela ireki gisa garatuko dira, hezkuntza-komunitatean bere adineko ikasleekin sartzeko.

3. Helduarora Igarotzeko Programek, hezkuntza-erantzuna diseinatu eta gauzatzean, kontuan hartuko dituzte ingurunean dauden eta helduen bizitzarako garrantzitsuak izango diren gizarte- eta osasun-arloko zerbitzuak.

4. Helduarora Igarotzeko Programak bi motatakoak izango dira:

a) Zereginen Ikaskuntzarako Programak. Desgaitasun intelektual larria edo neurritzkoa duten eta konpetentzia espezifikokoak eta zeharkakoak lortu ditzaketan ikasleei zuzendutako programa espezifikokoak dira, eta, horiei esker, ikasle horiek enplegu babestu batean edo, laguntzarekin, ohiko lanpostu batean lan egin dezakete eta, neurritzko laguntza-mailarekin, bizimodu independentea izan dezakete komunitatean.

b) Autonomia Pertsonal eta Sozialerako Programak. Desgaitasun larria duten eta laguntza orokorrak beharko dituzten ikasleei zuzendutako berariazko programak dira. Laguntza orokor horien artean daude lanerako zerbitzuak, bizitegi-unitateak, eguneko zentroak eta helduaroan autonomia eta ongizatea garatzeko laguntza pertsonalak.

26. artikulua. Oinarrizko Heziketa Zikloak.

1. Oinarrizko Heziketa Zikloak Oinarrizko Hezkuntzaren parte dira, Lehen Hezkuntzarekin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarekin batera. Lanbide Heziketaren prestakuntza-eskaintza osatzen dute, Erdi-mailako eta Goi-mailako Heziketa Zikloekin batera.

2. Ziklo horiek zuzentzen zaizkie, lehentasunez, lanbide-ikaskuntzekin bereziki motibatuta dauden eta, lanbide-munduarekin lotutako ingurune batean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako konpetentziak ikasteko eta lortzeko aukera gehien dituzten ikasleei.

3. Oinarrizko Heziketa Ziklora sartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira batera:

- Hamabost urte beteta eduki beharko dira, edo ziklora sartzen den urte naturalean bete beharko dira.

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren maila egin izana. Salbuespenez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila egin ondoren ere sartu ahal izango da.

- Orientazio Kontseiluan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasle-taldearen gomendioa jaso izana.

4. Oinarrizko Heziketa Ziklo bateko modulu guztiak gaindituz gero, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua eta eskuratutako lanbide-konpetentziak egiaztatuko dituen espezialitateko oinarrizko teknikariaren titulua lortu daitezke.

5. Oinarrizko Heziketa Zikloek irteerako konpetentzia-profilean ezarritako konpetentziak eskuratzea erraztuko dute, honako eremu hauetako irakaskuntzak antolatzearen bidetik:

a) Komunikazioaren eta gizarte-zientzien eremua. Barnean hartzen ditu Lanbide Hastapeneterako Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Gizarte Zientziak, eta Atzerriko Hizkuntza jakintzagaiei dagozkien oinarrizko alderdiak.

b) Zientzia aplikatuen eremua. Barnean hartzen ditu Matematika Aplikatuak, eta Zientzia Aplikatuak jakintzagaiei dagozkien oinarrizko alderdiak.

c) Lanbide-eremua. Barnean hartu behar du, gutxienez, Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren 9. artikulua (martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoa) Gaitasun Profesionalen Estandarren Katalogo Nazionalako 1. mailako kalifikazioa lortzeko beharrezkoa den prestakuntza.

Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren 9. artikulua aipatzen duen Gaitasun Profesionalen Estandarren Katalogo Nazionalako 1. mailako kalifikazioa lortzeko beharrezkoa den prestakuntza jaso behar du, gutxienez.

6. IV. eranskinean zehazten dira ikasleek komunikazioaren eta gizarte-zientzien eta zientzia aplikatuen eremuetan lortu behar dituzten ikaskuntzak.

27. artikulua. Jarduketa Plan Pertsonalizatua.

1. Jarduketa Plan Pertsonalizatua jasotzen dira ikasle jakin batek hezkuntza-proiektua garatzen den edozein testuinguruan dituen premiei erantzuteko aurreikusitako jarduketak. Ikasgelako programaziotik abiatuta gauzatuko da.

2. Ikasleek, familiek edo legezko tutoreek Jarduketa Plan Pertsonalizatuaren prestaketaren berri izan beharko dute, haren edukiaren berri, ikaslearen ebaluazioan eta kalifikazioan eragina duten erabakien berri eta, hala badagokio, planaren amaieraren berri.

3. Jarduketa Plan Pertsonalizatua prestatzeko eta planifikatzeko prozesuan, inplikaturako pertsona guztien arteko kolaborazioa sustatuko da: ikaslea, irakasleak, familia eta, hala badagokio, beste eragile batzuk.

4. Irakasle aholkulariek edo orientatzaileek, irakasle tutoreekin batera, ziurtatuko dute irakasle-taldearekin eta irakasle tutoreekin koordinatuko dela, Jarduketa Plan Pertsonalizatua duten ikasleak zikloz aldatzean edo hezkuntza-etapaz aldatzean.

5. Ikastetxeko zuzendaritzak zainduko du Jarduketa Plan Pertsonalizatua aurreikusitako moduan garatzen dela, eta inplikaturako eragileen koordinazioa ziurtatuko du.

6. Jarduketa Plan Pertsonalizatua Hezkuntza Ikuskaritzaren esku izango dira.

28. artikulua. Baliabide eta material didaktikoak.

1. Erabilitako material eta baliabide didaktikoek bat etorri behar dute dekretu honetan proposatzen den hezkuntza-eredu pedagogikoarekin. Ekitatearen, inklusioaren eta gizarte-kohesioaren printzipioei erantzun behar diete, eskola inklusiborako oinarria baitira.

2. Baliabide eta material pedagogiko eta didaktikoen diseinuak eta sorkuntzak ikasle guztiek aurrera egitea ahalbidetu behar du, eta proposamen dibertsifikatuak eskaini beharko dizkie irudikapenean, adierazpidean eta konpromisoan. Irizpide hauei jarraitu behar diete:

- genero-ikuspegia,
- aniztasun guztiekiko errespetua: generoa, afektibo-sexuala, kulturala, etnikoa...,
- materialen eskuragarritasuna hobetzea eta areagotzea eta ikaskuntzarako eta komunikaziorako oztopoak minimizatzea eta ezabatzea,
- zorrotasun zientifikoa,

- hizkuntza-egokitasuna,
- ikaskuntzen pertsonalizazioa,
- materialen euskarrien aniztasuna.

3. Ikastetxeek autonomia izango dute Oinarrizko Hezkuntzan erabili beharreko material eta baliabide didaktikoak sortzeko eta aukeratzeko, indarrean dagoen araudian eta aurretik zehaztutako irizpideetan ezarritakoaren arabera.

4. Hezkuntzako Ikuskaritzak ikastetxeek beren autonomia pedagogikoa erabiliz prestatutako material eta baliabide didaktikoak gainbegiratuko ditu, irakatsi eta ikasteko prozesua osatzen duten elementu guztiak ikuskatzeko ohiko prozesuaren zati gisa.

4. kapitulua. Ebaluazioa

29. artikulua. Ikaskuntzen ebaluazioa.

1. Ikasleen ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioa Oinarrizko Hezkuntzaren funtsezko osagaia da, eta arretaz planifikatu eta garatu behar da irakasteko eta ikasteko prozesuaren barruan.

2. Ikasleen ebaluazioa globala, etengabea eta prestakuntzako izango da, eta funtsezko konpetentzien garapen-maila eta ikaskuntza-prozesuan izandako aurrerapena izango ditu erreferente.

3. Ikasleek arlo, jakintzagai, eremu edo proiektu globalizatuetan egiten dituzten ikaskuntza-prozesuen ebaluazioen erreferente izango dira haietan barne hartzen diren konpetentzia espezifikoen ebaluazio-irizpideak.

4. Beren autonomiaren esparruan, eta indarrean dagoen araudiaren arabera, ikastetxeek ebaluazio-irizpideak eta ezinbesteko ikaskuntzak garatu eta zehaztu beharko dituzte beren Curriculum-Proiektuan, baita ikasle guztien hezkuntza-premiei erantzuteko beharrezkoak diren neurriak ere.

5. Ikasle guztien ikaskuntzen bilakaera behar bezala baloratzeko aukera emango duten askotariko ebaluazio-tresnak erabiliko dira. Ikasleen ezaugarri eta premia indibidualak eta espezifikoak egokituko dira, baita ikas-egoerak ere.

6. Ikasleek eta beren familiek, hezkuntza-prozesuaren hasieratik ezagutu behar dituzte ebaluazio-irizpideak, ezinbesteko ikaskuntzak, ikaskuntza-prozesua ebaluatzeko prozedurak, kalifikazio-irizpideak eta ikasleen promozio- edo titulazio-erabaketan aintzat hartuko diren irizpideak. Ikastetxeek horien berri emango diete ikasturte bakoitzaren hasieran.

7. Ebaluazioak, funtsean, ikasleen aurrerapenak identifikatzera bideratuta egon behar du, baita hezkuntza-prozesuan ikasleek izan ditzaketen zailtasunak hautematera ere, irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintzan zailtasun horiek zuzentzen lagunduko duten erabakiak hartu daitezzen.

8. Ikasle baten aurrerapena aurreikusitakoa ez denean, hezkuntza-arretako neurriak eta laguntzak ezarri beharko dira. Horiek ikasturteko edozein unetan hartuko dira, eta hezkuntza-prozesuan aurrera egiteko ezinbestekoak diren ikasketak eskuratzen direla bermatzera zuzenduko dira. Ikasleak zailtasunak izaten jarraitzen badu, intentsitate-

maila desberdineko neurriak eta laguntzak planifikatu beharko dira, Lehen Hezkuntzako hezkuntza bereziko irakasleen laguntza eta aholkularitzarekin edo Bigarren Hezkuntzako hezkuntza-orientatzailearen, laguntza-zerbitzuen eta/edo hezkuntza-arretako beste profesional batzuen laguntza eta aholkularitzarekin.

9. Irakasle-taldeak ikasleen ikasteko prozesuari buruzko eta funtsezko kompetentzien garapenean duten bilakaerari buruzko informazioa biltzeko prozedura sistematikoak ezarriko ditu, bai eta koordinazio-espazioak ere, betiere ikasle bakoitzaren ikasteko prozesua hobeto orientatuko duten erabakiak har daitezten.

10. Irakasle-taldeak –taldeko tutoreak koordinatuta– etengabeko ebaluazioa egingo du ikasturtean zehar, eta, ikasturtea amaitzean, azken ebaluazio-saioa egingo du –taldeko kide guztien artean–, betiere ikasleek lortutako kompetentzia-garapena aztertu ondoren. Kalifikazioari, promozioari edo, hala badagokio, titulazioari buruzko erabakiak hartuko dira. Era berean, bidezko erabakiak hartuko dira laguntza-neurriak planteatu beharri buruz edo lehendik daudenak berrikusteari buruz.

11. Irakasleek ikasleen ikasketak ez ezik, ikasteko prozesuak eta irakaskuntza-praktika bera ere ebaluatuko dituzte, horien hobekuntza sustatze aldera. Ikasleek lortutako emaitzen analisiari buruzko ondorioetatik abiatuta, neurriak ezarriko dituzte curriculumaren, antolamenduaren eta, bereziki, irakaskuntza-praktikaren esparruan. Neurri horiek plangintza-dokumentuetan jasotako hobekuntza-helburuetan islatuko dira.

30. artikulua. Ikasturte amaierako ikaskuntzen kalifikazioa.

1. Arlo, jakintzagai, eremu edo proiektu globalizatuetaiko ikaskuntzen kalifikazioa kasuan kasuko kompetentzia espezifikoaren ebaluazio-irizpideen arabera egingo da.

2. Ebaluazioaren emaitzak honela adieraziko dira: «Ez da nahikoa (EN)», kalifikazio negatiboetarako; «nahikoa (NA)», «Ondo (ON)», «Nabarmena (OO)», edo «Bikaina (BK)» kalifikazio positiboetarako.

3. Laguntza-plan indibidualizatua duten ikasleen kalifikazioaren erreferenteak dira plan horretan ezarritako ebaluazio-irizpideak.

4. Curriculum-elementuen antolaketa zenbait arlo edo jakintzagai barne hartzen dituzten eremuen bidez egin bada, kalifikazioa modu integratuan egingo da eta bakarra izango da. Kalifikazio hori eremua osatzen duten arloetara edo ikasgaietara eramango da, ikasleari eta haren gurasoei edo legezko tutoreei beren bilakaeraren berri emateko ezar daitezkeen prozedurei kalterik egin gabe.

4. Aurreko bi puntuetan adierazitako kasuetan, eremu edo proiektu horietan barne hartzen diren kompetentzia espezifikoak eta ebaluazio-irizpideak definitu beharko dira, eta horiek izango dira ebaluazio eta kalifikaziorako erreferentzia. Ikasleei edo familiei ebaluazioaren emaitzari buruz helarazten zaien informazioan, zeharkako eremu edo proiektu globalizatzaileetan lortutako emaitzekin batera, erreferentzia hau jasoaraziko da: curriculum-elementuak zein jakintzagairen parte diren, edo zein arlo edo jakintzagaitatik hartu diren.

5. Irakasle-taldeak, taldeko tutoreak koordinaturik, eta ikasturteko ebaluazio partzialetan hautemandako ikasteko prozesuaren bilakaera kontuan hartuta, azken ebaluazioa egingo du, eta bertan zehaztuko dira ikasleek lortutako ikaskuntzak eta kompetentzien garapen-maila.

6. Lehen Hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren mailak amaitzean eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasturte bakoitza amaitzean, irakasle-taldeak ikasleen kalifikazioak zehaztuko ditu, kide guztien artean, eta ikasturte amaierako ebaluazioaren ondorioekin bat. Horretarako, azken ebaluazioko saioa egingo da, eta saio hori ebaluazio partzialeko azken saioarekin bat etor daiteke.

31. artikulua. Jarduketa Plan Pertsonalizatua duten ikasleen ebaluazioa eta kalifikazioa.

1. Irakasle-taldearen ardura da Dekretu honen 28. artikuluan aipatzen den Jarduketa Plan Pertsonalizatua prestatzea, inplementatzea, haren jarraipena egitea, eta ebaluatzea, irakasle tutoreak gidatuta eta ikastetxeko irakasle aholkularien edo orientatzaileen aholkularitzarekin. 2. Jarduketa Plan Pertsonalizatua duten ikasleak plan horretan formulatzen diren ebaluazio-irizpideen arabera ebaluatu eta kalifikatuko dira.

3. Salbuespen gisa, Jarduketa Plan Pertsonalizatuak arlo edo jakintzagai batzuk aldi baterako ez kalifikatzea ekar dezake. Hala bada, Plan horretan neurri berezi horren iraupena zehaztu beharko da, eta erabaki hori behar bezala justifikatu.

4. Ikaslearen espediente pertsonalean jasoarazi beharko da Jarduketa Plan Pertsonalizatua.

32. artikulua. Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen promozioa.

1. Ziklo bakoitzaren amaieran, Lehen Hezkuntzaren kasuan, eta ikasturte bakoitzaren amaieran, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren kasuan, irakasle-taldeak, kide guztien artean eta tutoreak emandako informazioa eta irizpidea kontuan hartuta, ikasleen promozioari buruzko erabakia hartuko du.

2. Promozioari buruzko erabakiak hartzerakoan, kontuan hartuko da ikasleak funtsezko konpetentzietan behar besteko garapen-maila lortu duen eta dagokion ikasturterako edo ziklorako curriculum-proiektuan ezarritako ezinbesteko ikaskuntzak zein neurritan eskuratu dituen.

3. Irakasle taldeak ikasleak mailaz igoko dira funtsezko konpetentzietan behar besteko maila lortu dutenean edo, behar besteko maila horretara iritsi ez arren, horrek hurrengo ikasturtean probetxuz aritzea eragozten ez dionean, errekuiperatzea espero denean eta promozio hori maila akademikorako nahiz pertsonalerako onuragarria izango zaiola uste denean.

4. Nolanahi ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikaslea mailaz igoko da eremu edo jakintzagai guztiak gainditu baditu, edo jakintzagai batean edo bitan ebaluazio negatiboa izan badu, edo, curriculum-eremu edo proiektu globaletan antolatzea aukeratuz gero, bi jakintzagairi dagozkien curriculum-elementuetan ebaluazio negatiboa izan badu. Era berean, mailaz igoko da, baldin eta irakasle-taldeak uste badu gainditu gabeko ikasgaien edo eremuen izaerak hurrengo ikasturtean arrakastaz jarraitzea ahalbidetzen diela, eta uste badu errekuiperatzeko aukera onak dituztela eta promozio horrek haien bilakaera akademikoa hobetuko duela.

5. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zenbait mailatan izen bera duten jakintzagaiak jakintzagai desberdintzat joko dira.

6. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen jarduketa-planak arlo edo jakintzagai jakin batzuetarako curriculum-egokitzapenak ezartzen baditu, plan horietarako onartutako promozio-irizpideak izango dira kontuan ikasle horientzat.

7. Errepikapena salbuespenezko neurritzat joko da, eta neurri hori hartuko da, baldin eta ikasleak ez baditu eskuratu ikasteko prozesua baliatzen jarraitzeko ezinbestekoak eta beharrezkoak diren ikaskuntzak, nahiz eta ikasteko berariazko zailtasunei aurre egiteko ohikoak diren errefortzu- eta laguntza-neurriak erabili diren.

8. Maila berean beste urtebete emateko neurria behin soilik aplikatu ahal izango da eta bi aldiz gehienez Oinarrizko Hezkuntza osoan.

9. Salbuespen gisa, ikasle batek beste urtebete eman ahal izango du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailan, —nahiz eta Oinarrizko Hezkuntzan egoteko gehieneko aldia agortu den—, betiere irakasle-taldeak uste badu neurri horrek etaparako ezarritako funtsezko konpetentziak eskuratzen lagunduko duela. Kasu horretan, beste urtebetez luzatu ahal izango da Dekretu honen 3.1. puntuan adierazten den adin-muga.

10. Beste urtebete emateko erabakian, baloratu beharko dira ikasteko prozesuari buruzko alderdiak eta heldutasun-mailari buruzko alderdiak, baita berdinen taldearekiko loturari buruzko alderdiak ere, haien ongizate emozionala zaintze aldera. Horrez gain, gurasoen edo legezko tutoreen iritzia kontuan hartuko da. Nolanahi ere, maila berean beste urtebete emateko neurria bideratuko da hautemandako zailtasunak gainditzera, eta plan espezifiko pertsonalizatu bat ere izan beharko du, aldian behin berrikusi beharko dena neurri horren eraginkortasuna ziurta dadin. Plan espezifiko horretan, familien kolaborazioa sustatuko da, beharrezkoak diren hezkuntza-laguntzako baliabideak erabiliko dira eta hautemandako zailtasunak gainditzeko ikasleen motibazioa eta ahalegina sustatuko dira.

10. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan, jakintzagai edo eremu guztiak gainditu gabe mailaz igotzen diren ikasleek gainditu gabeko jakintzagaietan edo eremuetan matrikulatu beharko dute, irakasle-taldeak ezartzen dituen errefortzu-programei jarraituko diete eta dagozkien ebaluazioak gainditu beharko dituzte.

11. Errepikapenaren ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak hurrengo mailara igotzeko baldintzak bete ezean, irakasle-taldeak —orientazio-taldeak aholkatuta eta familiari informazioa eman ondoren— orientazio-aholku bat emango du ikasleek ikasten jarraitzeko dauden aukerei buruz, betiere ikasleen beharren eta interesen arabera.

12. Errepikapenaren ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak hurrengo ikasturtera igarotzeko baldintzak betetzen ez baditu, irakasle-taldeak, orientazio-taldeak aholkatuta eta familiari informazioa eman ondoren, aholku orientatzaile bat emango du ikasleen ikasketekin jarraitzeko dauden aukerei buruz, ikasleen premien eta interesen arabera.

33. artikulua. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.

1. Etapa amaitzean, honako ikasle hauek lortuko dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua: irakasle-taldearen irizpidearen arabera, konpetentzia espezifikoetan behar besteko garapen-maila lortu duten eta Oinarrizko Hezkuntzaren irteera-profilaren deskriptore operatiboetan adierazitakoa lortu duten ikasleek. Lorpen

hori egiaztatuko da Dekretu honetan ezarritako ebaluazio-irizpideak gainditzearen bidez.

2. Laguntza-plan indibidualizatua duten ikasleen kasuan, haien planean ezarritako konpetentziak eta ebaluazio-irizpideak hartuko dira erreferentziazat.

3. Etapa amaitzean, Dekretuan ezarritako konpetentzietako batzuetan behar besteko garapen-maila lortu ez duten ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortu ahal izango dute, baldin eta irakasle-taldeak –kide guztien artean eta kideen bi herenen adostasunarekin– uste badu inguruabar horrek ez duela eragotziko ikasleen prestakuntzaren jarraitutasuna. Egoera hori ikaslearen dokumentazio akademikoan islatu beharko da.

4. Salbuespenez, irakasle-taldearen irizpidearen arabera, 4. maila amaitzean titulua lortzeko moduan ez dagoen ikasleak beste urtebete eman ahal izango du maila horretan. Kasu horretan, irakasle-talde osoaren kolaborazioarekin prestatuko da ikasle horrentzako laguntza-plan indibidualizatua, barnean hartuko dituen orientazio pertsonalizatuak eta, bidezkoa bada, neurrien edo laguntzen proposamena.

5. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, ikasle guztiek ziurtagiri ofizial bat jasoko dute, egindako urte-kopurua eta lortu duten konpetentzien garapen-maila adieraziko dituen.

6. Horrez gain, Oinarrizko Heziketa Ziklo bat egin ondoren, ziklo horretako modulu guztiak gainditzen dituzten ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua eskuratuko dute.

34. artikulua. Bigarren Hezkuntzako titulua lortu ez duten ikasleentzako probak.

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzen ez duten ikasleek izaera akademikoa eta/edo profesionalizatzailea izango duen prestakuntzarekin jarraitzeko proposamenak jaso behar dituzte, betiere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eta/edo oinarrizko lanbide-titulua lortzera begira.

2. Ikastetxeek urtero antolatuko dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren kurtoa gainditu ez duten eta etapan egoteko gehieneko adina gainditu duten ikasleentzako probak, Hezkuntza Sailak ezarritako prozeduraren arabera. Eskaintza hori ikasketak amaitu eta hurrengo bi ikasturteetan egingo da.

35. artikulua. Ebaluazio-dokumentu ofizialak.

1. Lehen Hezkuntzako ebaluazio-dokumentu ofizialak hauek dira: ikasturte amaierako ebaluazio-aktak, espediente akademikoa, historia akademikoa, ikasturte amaierako eta etapa amaierako banakako txostena eta, hala badagokio, lekualdaketei buruzko txosten pertsonala.

2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ebaluazio-dokumentu ofizialak hauek dira: ikasturte amaierako ebaluazio aktak, espediente akademikoa, historia akademikoa, ikasturte bukaerako eta etapa bukaerako banakako txostena, bigarren eta laugarren mailetak orientazio-aholkua eta, hala badagokio, lekualdaketei buruzko txosten pertsonala.

3. Historia akademikoa eta, hala badagokio, lekualdaketei buruzko txosten pertsonala oinarritzko dokumentutzat hartzen dira Estatuko lurralde osoan ikasleen mugikortasuna berma dadin.

4. Ikasleen mugikortasuna bermatze aldera, eta arlo bat baino gehiago eremu batean integratuta egin direnean, horietako bakoitzean lortutako kalifikazioa jasoko da historia akademikoan. Kalifikazio hori dagokion eremurako espedientearen agertzen den kalifikazio bera izango da.

5. Euskal Autonomia Erkidegoan, dokumentazio akademikoa eta ebaluaziokoa modu digitalizatuan bete eta jasoko da, hezkuntzaren arloko sail eskudunak zehazten dituen aplikazio informatikoen bidez, 39/2015 Legean adierazitakoaren arabera.

6. Paper formatuko dokumentazio akademikoa eta ebaluaziokoa ikastetxeetan gordeko da, halakorik badago. Ikastetxe publikoren bat ixten bada edo itunpeko ikastetxe pribatu bateko jarduerak bertan behera geratzen badira, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzek finkatuko dituzte ikastetxe iraungiak sortutako dokumentazioa artxibatu eta zaintzeko gidalerroak.

7. Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio ebaluazio prozesuak eta ebaluazio-dokumentuak betetzeko eta zaintzeko prozedura gainbegiratzea.

36. artikulua. Curriculum Dibertsifikazioko Programetako ebaluazioa, promozioa eta titulazioa.

1. Curriculum Dibertsifikazioko Programa bateko ikasleen ebaluazioan, funtsezko erreferentzia izango dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako, oro har, ezarritako kompetentziak, helburuak eta ebaluazio-irizpideak, eta, zehazki, programa horren programazioan ezarritako programaren ebaluazio-irizpide espezifikoak.

2. Oro har, ikasleak automatikoki igoko dira curriculum-dibertsifikazioko lehen mailatik bigarrenera.

3. Curriculum Dibertsifikazioko Programaren lehen maila amaitutakoan, irakasle-taldeak erabaki ahal izango du ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila egin dezakeen ala ez, curriculum orokorrari jarraituz; eta, beharrezkoa bada, neurri eta laguntza pertsonalizatuak eskaini behar zaizkion, ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua eskuratzeko beharrezkoak diren kompetentziak lortu ditzan.

4. Curriculum Dibertsifikazioko Programa bateko ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortuko du, baldin eta programa horretarako ezarritako ebaluazio-irizpideak lortzen baditu.

37. artikulua. Irakasteko eta ikasteko prozesua eta ebaluazio-prozesuak Hezkuntza Ikuskaritzak gainbegiratzea.

1. Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio irakatsi eta ikasteko prozesuarekin zerikusia duten elementuak gainbegiratzea; horretarako, elementu horien plangintza eta ezarpen egokiari erreparatuko zaio, bai eta ebaluazioari ere, hala ikasleen ebaluazioari dagokionez nola irakaskuntzaren ebaluazioari dagokionez.

2. Hezkuntza Ikuskaritza, gainbegiratze-prozesuen barruan, aldian-aldian bilduko da ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza-taldearekin eta koordinazio pedagogikoko taldeekin. Bilera horietan, ikasleen emaitzak (barnekoak eta kanpokoak) emaitza akademikoak aztertu eta baloratuko dira, emaitzei buruzko gogoeta eta analisisa sustatu eta bultzatuko

da, eta hobekuntza-helburuen proposamena bultzatuko da –helburu horien jarraipena egingo da, laguntza-prozesuen bidez–.

3. Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio ikastetxe publikoetan irakaskuntza-praktika nola egiten den ebaluatzea, betiere oinarrizko hezkuntza-arauan eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena) ezarritakoaren arabera. Ebaluazio horren helburu nagusia izango da irakaskuntza-jardunaren kalitatea bermatzea eta haren hobekuntza profesionalerako eta ikasleen hezkuntza-emaitzen hobekuntzarako lagungarriak izango diren neurriei buruzko aholkuak ematea.

38. artikulua. Familientzako informazioa eta ebaluazio objektiborako eskubidea.

1. Familiek edo legezko tutoreek seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-prozesuaren bilakaeran parte hartu eta lagundu beharko dute, eta haien ebaluazioari, promozioari eta titulazioari buruzko erabakiak ezagutu beharko dituzte; gainera, kolaboratu beharko dute beren seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-aurrerapena errazteko ikastetxeek hartzen dituzten laguntza- edo indartze-neurriekin.

2. Familiek beren seme-alaben hezkuntza-prozesuan parte hartzeko duten eskubidea eta betebeharra errazte aldera, ikastetxeak ikasleen eskola-bilakaeraren berri eman behar die familiei edo legezko tutoreei, txosten kualitatiboen bidez, bakarkako elkarrizketen bidez, bilera kolektiboen bidez eta egokitut jotzen den beste edozein bitartekoren bidez. Edonola ere, hezkuntza-etapa bakoitzaren hasieran bakarkako elkarrizketa bat, ikasturtean zehar beste bakarko elkarrizketa bat eta ikasturte bakoitzaren hasieran bilera kolektibo bat izatea bermatuko da, gutxienez.

3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikastetxeko aholkularitza- eta orientazio-taldeak tutorearekin kolaboratuko du, ikaslearen gurasoei edo legezko tutoreei eta ikasleari berari beharrezko informazioa, orientazioa, aholkularitza eta laguntza emateko eta eskolatze-aukerarik egokienei buruz orientatzeko, dauden baliabideen eta ikasleak onartzeko araudiaren eremuan.

4. Arlo, irakasgai edo eremuen kalifikazioari dagokionez, eta ikasleei dagokien ebaluazio objektiborako eskubidea bermatze aldera, irakasleek emandako kalifikazioaren justifikazioaren eta arrazoen berri emango diete ikasleei eta familiei, ebaluazio-irizpideetan ezarritakoari erreferentzia eginez eta ikasleak horietan adierazitakoa lortu duen ala ez argudiatuz.

39. artikulua. Ebaluazio diagnostikoa.

1. Ebaluazio diagnostikoak hezkuntza-gaietan eskumena duen sailaren eta ikastetxeen arteko erantzukizun partekatua dira, eta ikastetxeentzat eta euskal hezkuntza-sistema osoarentzat hobetzeko aukera gisa eta erronka gisa ulertu behar dira.

2. Ebaluazio diagnostikoko prozesuen helburua da ikasleek funtsezko kompetentzietan eta kompetentzia espezifikoetan lortutako maila egiaztatzea eta irakasle-taldee, ikasleei, familiei edo legezko tutoreei eta hezkuntza-komunitate osoari laguntzea irakaskuntza-praktika aztertzen, baloratzen eta, beharrezkoa bada, birbideratzen, betiere ikasleek curriculumean ezarritako kompetentziak eta ikaskuntzak lortu ditzaten.

3. Ebaluazio diagnostikoko probak egingo dira etapen erdian (LHko 4. mailan eta DBHko 2. mailan), errolda-izaerarekin, eta etapen amaieran (LHko 6. mailan eta DBHko 4. mailan), lagin-izaerarekin.

4. Horrela lortutako informazioa erabiltzean, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legerian xedatutakoa hartuko da kontuan. Lortzen den informazioa talde, arlo eta ikastetxeen tratamendu estatistikorako erabiliko da, baita aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako ere. Ebaluazio horiek ezin izango dira ikastetxeen sailkapenak egiteko erabili.

5. Bakarkako, taldeko eta ikastetxeko txosten batean zehaztuko dira proba diagnostikoen emaitzak eta dagozkien txostenak (bakarkakoak, taldekoak eta ikastetxeak), beste adierazle batzuekin batera. Ez dute, inola ere, zehaztuko ikasleen espediente akademikoa. Horretarako, faktore indibidualak eta testuingurukoak (sozioekonomikoak, kulturalak eta hizkuntzakoak) hartuko dira kontuan.

6. Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeari (ISEI-IVEI) dagokio probak prestatzea, eta aplikazio-, zuzenketa- eta aplikazio-irizpideak definitzea, institutu horrek formulatutako kontzeptu-esparruetatik abiatuta. Gainera, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak bidezko ereduak eta laguntzak eskainiko dizkie ikastetxeei, ikastetxe guztiek behar bezala egin ahal izan ditzaten ebaluazio horiek.

7. Ebaluazioak egiteko baldintzak hezkuntza-laguntzarako berariazko premia duten ikasleen beharretara egokitzeko neurririk egokienak ezarriko dira.

40. artikulua. Egiazkotasuna, segurtasuna eta konfidentzialtasuna.

1. Ikasleen datu pertsonalak lortzeari dagokionez eta ikastetxe batzuek beste batzuei datu horien segurtasuna eta konfidentzialtasuna lagatzeari dagokionez, indarrean dagoen datu pertsonalak babesteari buruzko legerian xedatutakoari jarraituko zaio, baita, nolahi ere, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari ere.

2. Ikaslearen espediente elektronikoak, gutxienez, ebaluazio-dokumentu ofizialetan jasotako datuak bilduko ditu, eta urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuan (Administrazio Elektronikoaren arloko Elkarreragingarritasunerako Eskema Nazionala arautzen duena) ezarritakoa beteko du.

41. artikulua. Dokumentazioa zaintzea.

1. 39/2015 Legean adierazitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan, dokumentazio akademikoa eta ebaluaziokoa modu digitalizatuan jasoko da, hezkuntzaren arloko sail eskudunak zehazten dituen aplikazio informatikoen bidez.

2. Ebaluazio-dokumentuak ikastetxeetan gordeko dira, halakorik badago. Ikastetxe publikoren bat ixten bada edo itunpeko ikastetxe pribatu bateko jarduerak bertan behera geratzen badira, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzek finkatuko dituzte ikastetxe iraungiak sortutako dokumentazioa artxibatu eta zaintzeko gidalerroak.

3. Hezkuntza Ikuskaritzari dagokio ebaluazio-dokumentuak betetzeko eta zaintzeko prozedura gainbegiratzea.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. Ezarpen-egutegia.

Dekretu honetan araututako irakaskuntzei dagozkien curriculumak 2022-2023 ikasturtean ezarriko dira Lehen Hezkuntzako lehen, hirugarren eta bosgarren mailetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta hirugarren mailetan. 2023-2024 ikasturtean amaituko da Oinarrizko Hezkuntzako ezarpena.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Eremuen araberako irakaskuntza.

1. Eremuen arabera antolatutako irakaskuntza modu progresiboan ezarriko da, ikastetxeek irakaskuntza planifikatu ahal izan dezaten eta irakasle-taldea prestatu ahal izan dezaten. Ezarpena datorren 2022-2023 ikasturtean hasiko da, eta 2025-2026 ikasturtean iritsiko da ikastetxe guztietara.
2. Halaber, ikastetxeek modu progresiboan eguneratu beharko dituzte programazio didaktikoak, eta bi ikasturtetan erabat berritu.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Irakaskuntza-espezialitateak.

Ikastetxeak jakintzagaiak eremutan taldekatzea erabakitzen duenean, eremu horien irakaskuntzaz arduratuko dira eremu horietako edozein jakintzagai emateko eskuduntza duten espezialitateetako katedradunak eta bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoetako funtzionarioak.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak eta beste irakaskuntza batzuk bateragarri egitea.

1. Hezkuntza-gaietan eskumena duen sailak aukera emango du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak eta musikako eta dantzako arte-irakaskuntza profesionalak uztartzeko.
2. Hezkuntzaren arloko sail eskudunak salbuespenezko eskolatzeko neurriak baimendu ditzake, errendimendu handiko kirol-jarduerak eta antzekoak egiten dituztenentzat.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Erlijioaren irakaskuntza.

1. Ikasturtea hasi baino lehen, adin nagusiko ikasleek eta adingabeen familiek edo legezko tutoreek Erlijio ikasketak jaso nahi dituzten ala ez adieraziko dute.
2. Ikastetxeak etapa bakoitzeko maila guztietan eskainiko du Erlijioa. Asteaz geroz ordubete emango da. Familiek edo legezko tutoreek aukeratuta egingo da ikasketak hori. Ikasturte bakoitzeko hasieran egingo da aukeraketa hori. Ikastetxeek antolaketa-neurriak hartuko dituzte erlijio-ikasketak egiten ez dituzten ikasleek behar den hezkuntza-arreta jaso dezaten. Funtsezko konpetentziak garatu beharko dira, komunitatearen zerbitzurako proiektuen bidez, eta, hartara, autoestimua, autonomia, gogoeta eta erantzukizuna indartuko da, baita balio zibiko eta etikoak ere. Erlijioa ikasten ez duten ikasleen hezkuntza-arreta taldeko tutorearen esku egongo da, ahal izanez gero.
3. Erlijio katolikoaren irakaskuntza Egoitza Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean sinatutako Irakaskuntza eta Kultura Gaiei buruzko Akordioan ezarritakoari lotuko zaio. Horretarako, erlijio katolikoa arlo gisa barne hartuko da Lehen Hezkuntzan eta jakintzagai gisa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan –ikastetxeek nahitaez eskaini beharrekoa izango da eta ikasleentzat hautazkoa izango da–.
4. Beste erlijio batzuen irakaskuntza, bestalde, Espainiako Estatuak honako erakunde hauekin sinatutako kooperazio-akordioetan xedatutakoari lotuko zaio: Espainiako Erakunde Erlijioso Ebanjelikoen Federazioarekin, Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioarekin eta Espainiako Batzorde Islamikoarekin. Era berean, eta hala badagokio, etorkizunean beste erlijio-konfesio batzuekin izenpetu daitezkeen akordioetan xedatutakoari ere lotuko zaio.

5. Erlijioa jakintzagaiaren curriculumara zehaztea kasuan kasuko erlijio-agintaritzen eskumena izango da. Testuliburuak eta material didaktikoak erabiltzeari buruzko erabakiak eta, hala badagokio, horiek gainbegiratu eta onartzeari buruzkoak kasuan kasuko erlijio-agintaritzei dagozkie, Espainiako Estatuarekin sinatutako Akordioetan ezarritakoaren arabera.

6. Erlijio katolikoaren irakaskuntzen ebaluazioa etapako beste jakintzagaien baldintza eta ondorio berekin egingo da. Estatuarekin kooperazio-akordioak sinatu dituzten erlijio-konfesioen irakaskuntzaren ebaluazioa akordio horietan ezarritakoari lotuko zaio.

SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Helduen Hezkuntza.

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako kompetentziak eta jakintzak eskuratu nahi dituzten helduek beren baldintzetara eta beharretara egokitutako eskaintza izango dute. Eskaintza hori irakaskuntza presentzialaren, erdi-presentzialaren eta urrutiko hezkuntzaren bidez garatu ahal izango da.

2. Ikasleek jakintzaren ikuspegi integratua eskuratze aldera eta, horren bidez, kompetentziak garatu eta XXI. mendeko erronka eta desafio global nagusiei arrakastaz aurre egite aldera, etapa honetako irakaskuntzak modu modularrean antolatuko dira hiru eremutan eta, horietako bakoitzean, bi mailatan:

a) Komunikazio-eremua. Dekretu honen III. eranskinean Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntza jakintzagaiei buruz jasotako gutxienerako irakaskuntzak bilduko ditu.

b) Eremu soziala. Dekretu honen III. eranskinean Gizarte Zientzietako jakintzagaiei buruz (Geografia eta Historia eta Balio Zibiko eta Etikoetako Heziketa) jasotako gutxienerako irakaskuntzak bilduko ditu.

c) Eremu zientifiko-teknologikoa. Dekretu honen III. eranskinean Fisika eta Kimika; Biologia, Geologia; Matematika; eta Teknologia eta Digitalizazioa jakintzagaiei buruz jasotako gutxienerako irakaskuntzak bilduko ditu.

3. Irakaskuntza horien antolaketak irakaskuntzak bi mailatan egiteko aukera eman beharko du.

4. Bigarren paragrafoan aipatutako hiru eremuetako bakoitzari dagozkion mailako bat gaituz gero, Estatu osoan izango du balioa.

5. Eremu guztiak gaituzteak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko eskubidea ekarriko du. Edonola ere, irakasle-taldeak proposatu ahal izango du eremuren bat gaituzte ez duten baina helduen oinarrizko prestakuntzaren helburu orokorrak modu globalean lortu dituztela uste den pertsonen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua ematea. Erabaki horretan kontuan hartuko dira ikasle bakoitzaren prestakuntza-aukerak eta jardura akademiko eta laborean integratzeko aukerak.

6. Hezkuntza Sailak aldian-aldian antolatuko ditu hemezortzi urtetik gorako pertsonen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua zuzenean lortu ahal izateko probak, betiere etapako helburuak eta funtsezko kompetentziak lortu badituzte. Proba horiek irisgarritasun unibertsaleko neurriak beteko dituzte, baita hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasle guztiak behar dituzten egokitzapenak ere, eta hiru ezagutza-eremuetan oinarriturik antolatuko dira.

ZAZPIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Atzerriko ikastetxeetako irakaskuntzak.

Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak zehaztuko du, bere eskumenen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko atzerriko ikastetxe baimenduek eman behar dituzten Espainiako hizkuntza eta kulturako irakaskuntzak eta euskal hizkuntza eta kulturako irakaskuntzak. Nolanahi ere, ikastetxe horiek Dekretu honetan arlo eta jakintzagai horietarako ezarritako gutxieneko orduak errespetatu beharko dituzte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Era berean, indargabetuta geratzen dira Dekretu honetan ezarritakoaren aurka doazen ekainaren 9ko 86/2015 Dekretuaren artikulak (Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzko Dekretua).

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea.

Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko XXXXXXaren XXa.

Lehendakaria,

IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntzako sailburua.

JOKIN BILDARRATZ SORRON